

Urtekarria

2018



anboto
komunikabideak

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara
eta bertako produktuen
kontsumoa sustatzen
dugu

 **EROSKI**
zurekin



Hemengoa
izatea ona da



www.eroski.es

Oraindik ere Euskaraldiaren txapa kendu barik duten hainbat lagunekin gurutzatzen gara kalean. Bizitzaren zurrumbilo honetan momentu batez euskararen inguruan gogoeta pertsonal zein kolektiboa egiteko balio izan duen jolasa 2018ko gai garrantzitsuenetako bat izan da. Bazen sasoia! Kua-drilletan, bikoteen artean, familian, lan taldeetan... euskararen inguruan hautu kontzienteak egiteko tresna izan da Euskaraldia.

Euskararen olatuak Euskal Herri osoa zipriztindu du, baita Durangaldea ere. Ehunka lagun aritu dira ilusioz hau guztia prestatzen, elkarlanean izen-emateetan parte hartuz, txapak banatuz, ekitaldiak antolatuz... Biba zuek.

Hamaika egunak pasatuta, euskarak urteko 365 egunak betetzeko momentua heldu da. 2019rako helbururen bat ezarri behar badiozu zeure buruari, euskaraz ekitea zerrenda horretan egotea ezinbestekoa da. Euskara da euskaldun egiten gaituena. Bada, euskaldundu dezagun Durangaldea.

Anboto komunikabideak - DHK
946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto 
komunikabideak

AURKIBIDEA

4 URTARRILA

8 OTSAILA

12 MARTXOA

16 APIRILA

20 MAIATZA

24 EKAINA

28 UZTAILA

32 ABUZTUA

34 IRAILA

38 URRIA

42 AZAROA

46 ABENDUA

ALKIMAX

Alquilamos soluciones



BERRIZ

Eitua industriagunea, 71C

Tel.: 946 824 550

GERNIKA

Goiko Ibarra, 26

Tel.: 946 271 310

www.alkimax.com

alkimax@alkimax.net



Durangoko Kurutziagak eta Elorrioko Txintxirrik 50 urte

✚ **Herririk herri** - DURANGO-ELORRIO

➤ **OSPAKIZUNA.** Urteurren borobilak ospatu dituzte Durangoko Kurutziaga eta Elorrioko Txintxirri ikastolek. Bost hamarkadatan hezkuntza komunitate horietan parte hartu duten guraso, sortzaile, ikasle eta irakasleek parte hartu dute urte osoan antolatutako ekitaldietan.

Elorrioko ikastola 1968ko urtarrila-ren 10ean sortu zuten eta 50 urte geroa-

go, egun berean, urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten Arriola antzokian. Elorrioko antzokia bete egin zen ikasle, ikasle ohi, irakasle, eta gurasoekin. Ikastolako sortzaileei omenaldia eginda eman zioten hasiera ekitaldiari. "Ikastolako sorreran ibilitako asko ezin izan dira bertaratu, batzuei ezinezkoa egin zaielako eta beste batzuk hilda daudela-

ko. Hala ere, den-denei eskerrak eman gura dizkiegu", adierazi zuten ekitaldiko aurkezleek.

Kurutziagako ospakizunak

Kurutziagako ospakizun urtea izan du aurtan. Durangoko ikastola sortu zutela bost hamarkada igaro direla eta, hainbat ekintza antolatu dituzte urte osoan zehar. Proiektuaren sortzaileei eta bertan lanean jardundako irakasleei omenaldi hunkigarria egin zieten lehenik. Era berean, azaroaren 10ean, ospakizun erraldoia egin zuten Landako Gunean. Ikastolako komunitateko 1.300 lagun batu ziren bertan.



"Txotxongiloak nire adierazteko modua dira"

✚ **Kultura** - ZORNOTZA

➤ **ANTZERKIA.** Miren Larrea zornotzarrak Bartzelonan sortutako Anita Maravillas konpainiak FETEN jaialdi entzutetsuan parte hartu zuen. Durangon ere aurkeztu zuten umeei bideratutako Jon Braun txotxongilo antzezlan. Kolonizazioaren gaia jorratzen du Jon Braun eta Malintxe neba-arreben ikuspuntutik. "Munduko ume guztiak ordezkatzeko zituen zerbait gura genuen", adierazi zuen obrari buruz. Bere motibazio pertsonalak ere izan zituen berbagai. "Txotxongiloak nire sorkuntza artistikoagaz lotuta daude, nire adierazteko modua dira pampina hauek", esan zuen.

Senar-emazteak, pilotu eta kopilotu

✚ **Kirola** - MALLABIA

➤ **AUTO LASTERKETAK.** Asier Araiz-tegi mallabitarra auto pilotua da eta Izaskun Badiola lekeitiarra bere kopilotua. Senar-emazteak dira. Horrek desabantailak baino abantaila gehiago ditu Araiztegiren esanetan. "Abantailarik handiena gure arteko konfiantza da. Askok esan digute eztabaida asko izango genituela, baina ez da gure kasua".



"Plaka termikoa etxeko asmakizunik onena da"

✚ **Erreportajea** - IURRETA

➤ **ENERGIA BERRIZTAGARRIAK.** Eukeni Bastidak eguzki plakak ditu Iurretako Bakixa auzoko baserrian. Gehienak fotovoltai-koak dira eta beste bat termikoa da. Gustura dago emaitzagaz eta jendea antzerako bidea hartzera animatzen du. "Ingurumena zaintzeaz aparte, ekonomikoki aukerak ematen dituela ikusten da. Plaka termikoak, adibidez, ez du trabarik eduki. Etxeko asmakizunik onena da", adierazi zuen.



75.000 litro gehiagoko sagardo denboraldia

Herririk herri - ZORNOTZA

> TXOTX DENBORALDIA. Bizkaiko sagardo ekoizleek 200.000 litro jarri dituzte merkatuan aurtengo denboraldian, iaz baino 75.000 gehiago. Urtero lez, Zornotzako Uxarte sagardotegian abiatu zuten denboraldia. Zea Mays taldeko musikari Aiora Renteria izan zen enbaxadorea.



Hil aurretik egin beharrekoen zerrenda

Herririk herri - ELORRIO

> EKIMENA. Zer egin gura dut hil aurretik? Galdera horri erantzun zioten elorriarrek Amankomunazgoak sustatutako Before I Die ekimenean. Helduek zein gazteek, hil aurretik egia bilakatu gura dituzten ametsak frontoian jarritako hausnarketarako horman itsatsi zituzten.



Pertsiana koloretsu eta erakargarriagoak

Herririk herri - ZORNOTZA

> MERKATARITZA. Txiki Otaegi kaleko hainbat dendatako pertsianak apaindu zituzten urtarrilean, merkataritzarako erakargarriago bihurtzeko eta inguruko jarduera ekonomikoa bultzatzeko asmoz.

"42 urte daramatzagu familiak banatuta"

Herririk herri - DURANGALDEA

> ELKARRIZKETA. Ouali Omar Heibak bost urte zituen Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpalekutik lehenengoz irteten zenean. Gaur egun Zornotzan bizi da, baina gertutik jarraitzen dio hango egoerari. "Gune okupatueta bizitako egoera ikusteak inpotentzia sortzen du. 15 urte daramatzagu erreferendumari itxaroten. 42 urte familiak banatuta", azaldu zuen.



Txetxu Angoitia

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

www.durango-udala.net



L.E.

"Burgosko epaituek Durangoko tren estazioan egin zuten lo"

Elkarrizketa - DURANGO

> HISTORIA. "Trenek beti erakarri izan naute", dio Enrike Urkijo Bilboko Udaleko garraio zuzendariak. Ez da harritzekoa, euren artean hazi zelako. Gaur egun eraitsita dagoen Durangoko estazioan jaio eta hantxe bizi izan zen, trenbideetako tradizioa zuen bere familiagaz. Estazioa eraisten ari ziren egunetan lau

pareta haien artean bizitako hainbat anekdota gogoratu zituen. Esaterako, 1977an Burgosko prozesuko zigortuak euren etxera, estaziora, lo egitera eramane zituenekoa. Honela kontatzen du Urkijok berak. "Burgosko epaituen kale-ratzea hitzartu zuten. Belgikara eta Danimarkara bidali zituzten, besteak beste.

Urte haietan KASeko mahai nazionalen nengoen eta epaituak Euskal Herrira ekarri behar genituela erabaki genuen, euren egoera legezatzeko. Abadiñoko kantaldi batean jendaurrean aurkeztea pentsatu genuen. Agerraldia Durangora lekuz aldatzerik ba ote zegoen galdetu zidaten, eta nik baietz. Bilboko etxe batean zeuden gordeta eta gau hartan bertan estaziora ekarri nituen, gure etxe aurreko pisura. Langile bat jubilatut egin zen, bere pisua libre zegoen eta bageneukan giltza. 01:00etan etxeko atea jo eta: "Ama, Burgosko epaituekin nator", esan nion.



"Bizkaiko sagardoa sustatu egin behar da"

Akuilua - ZALDIBAR

> SAGARDOA. Sagardogilea da Jose Antonio Elustondo. Afizioz egiten du, familian eta lagunartean banatzeko. "Ez dut saltzeko asmorik, momentuz behintzat. Akaso aurrerago... jubilatzen naizenean edo", azaldu zuen umorez. Bizkaiko eta Gipuzkoako sagardoaren artean, jakina, etxekoaren alde egiten du. "Gozoagoa da Bizkaikoa. Oraindik ez dago sagardogile asko hemen, baina uste dut hemengo sagardoa sustatu egin behar dela. Gure parajea eguzki-begian dago, eta sagarra ondo heltzen da", adierazi zuen.

Iurretan egindako auto elektriko eta jasangarria

Gehigarria - IURRETA

> INGURUMENA. Ingurumenaren arloko Berdeago azokan, eurek egindako auto elektrikoa aurkeztu zuten Iurreta institutuko ikasleek. Estancona izeneko auto modeloaren diseinua hartu zuten oinarritzat. Doñiturri y Estancona fabrikari 1953an sortutako autoa XXI. mendera ekarri zuten; besteak beste, eguzki-energia lortzeko plakekin hornituta. Hainbat sail-etako ikasleek elkarlanean jardun zuten.



"Jasotakoa bueltan ematea itzela da"

Kultura - BERRIZ

> MUSIKA. Lehenengo diskoagaz urtebetea kontzertuz kontzertu ibili ostean, etapa bat itxi eta berriro estudioara sartzea erabaki zuen Worth It taldeak. Despedidako kontzertua Berrizen eskaini zuten, euren sorterrian, jaietan. "Herriko jendeak asko eman digu, eta bueltan eman ahal izatea itzela da guretzat", esplikatu zuen Odei Arrizabalaga taldeko abeslariak. Ondoren, sorkuntzan murgildu eta ekainean bigarren lana kalera-tu zuten: Better Ways. Plataforma digitala aurkitu daiteke.



Jon Barcenari azken agurra Berrizen

Herririk herri - BERRIZ

AGURRA. 2017ko urte amaieran Gorbeia mendi inguruan desagertu eta handik hilabetera hilik aurkitu zuten Jon Barcena berriztarra, eta senitarteko, lagun eta herrikideek azken agurra egin zioten bere sorterrian. "Une gogorretan ere erakutsi diguzue Jonek lagun onak eta jatorrak izan dituela", adierazi zuen Jonen familiak.



"Emakumeek gorde dute baratzeak jakintza"

Gehigarria - DURANGO

INGURUMENA. Agronomoa eta paisajista ogibidez, ortuan dabilzanek aholkulari eta erreferente dute Jakoba Errekondo. "Etxe guztietan dago baratzea, eta ez du inork aipatzen. Zergatik? Lan hori emakumeek egin izan dutelako. Gizonen gauza handiei eman zaie garrantzia. Jakintza izugarri hori emakumeek gorde dute. Harro egotekoa da", uste du Errekondok.



"Tonu probokatzailea darabil Federicik"

Kultura - ZORNOTZA

LITERATURA. Silvia Federiciren artikulu-sorta bat euskarara itzuli zuen Amaia Astobiza zornotzarrak eta Soldataren patriarkatua izenagaz kaleratu zuen. "Buruhausterik handiena testurik teorikoenetan izan dut. Horrez gain, arreta berezia jarri diegu Federiciren tonuari eta terminologiari. Izan ere, urgentzia bat adierazten duen tonu probokatzailea darabil", azaldu zuen.

"Bost-hamar urtean hazi egingo da padela"

Kirola - ABADIÑO

PADELA. Iñaki Urionaguena pilotari profesionala izan zen hamarkada batez. Gaur egun, padela du afizio. Geratzeko etorri den kirola dela uste du. "Ez dut uste moda pasakor bat izango denik, jokatzeko oso erraza baita. Adin denetako jendea ikusten dut jokatzeko. Bost-hamar urteren barruan dezente gehiago hazi eta zabalduko dela uste dut", esan zuen.



"Tona bat pezeta dut bidoietan gordeta"

Akuilua - ABADIÑO

BILDUMAK. Bildumazalea da Jabier Usabel. Denetarik bildu du, baina gordetako pezetengatik egin da ezagun. "Okindegira ogia erostera joanda okinak bueltatutako eskuartekoa gordetzen hasi nintzen. Gero, lagunak ere poltsakadak ekartzen zizkidaten. Gaur egun, tona bat pezeta izango dut gutxi gorabehera bidoietan gordeta", azaldu zuen. Bost kontinentetako hainbat txanpon eta diru-paper ere baditu.



ekin group
EUROPA
AMERIKA
ASIA

ZURE BAZKIDE GLOBALA BROTXAKETA ETA HOTZEKO IJEZKETA LANEI IRTENBIDEA EMATEKO



Durangoko Familiek hainbat eskaera egin dizkiote udalari

Herririk herri - DURANGO

> **FAMILIAK.** Durangoko Familien Taldeak San Agustinen egindako batzarrarean abiatu zuen bere ibilbidea urte hasieran. Asteburuetan ez ezik astegunetan ere Landako Gunean Txikiparka zabaltzeko eskatu zuen Durangoko Familien Taldeak. Umeak jolasteko espazio estali baten beharra ikusten zuten, batez ere eguraldi txarra dagoenean alternatiba izan dadin.

Urrian, berriz, Durangoko Familiak elkarteak mozioa aurkeztu zuen osoko bilkuran, eta kasik aho batez onartu zen. Gaizka Uriarte gurasoak irakurri zuen mozioa. "Ez da egia Durangon haur eta nerabeentzako ekintzak egi-

ten ez direnik, baina sentsazioa dugu ez dagoela plan integralik. Momentuko okurrentziak izaten dira, eta iritzia jakin barik". Bere esanetan, ludotekarena ere "partxe" bat da arlo horretan, baina "ezinbestekoa" aldi berean.

Eredu lez, Durangoko Azokaren egunetan Elkartegian ipintzen den Saguganbara aretoa ipini zuen. Eta, etorkizunera begira, Correosen eraikin zaharra ludoteka bihurtzeko proposamena plazaratu zuen, herriaren erdigunean dagoelako eta trafikorik ez dabilelako inguruan. "250 familia gara eta elkarlanerako prest gaude", aipatu zuen Uriartek.



Garbi galdategian lan istripua salatu dute

Herririk herri - ABADIÑO

> **LANUZTEAK.** Garbi galdategiko langileek lanuzteak egin zituzten langile batek izandako lan istripua salatzeke. Hilabete gutxian gertatutako bigarren istripua zen. Urte amaieran hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen galdategiak.



Gerediagak Sabino Arana saria jaso du

Herririk herri - DURANGALDEA

> **SARIKETA.** Sabino Arana Fundazioak Gerediaga elkarteak saritu zuen Durangaldeko ondare historiko, artistiko eta tradizionala ikertzen, zaintzen eta zabaltzen egindako lanagatik. Gerediagako presidente Nerea Mujikak jaso zuen saria.




San Jose Ikastetxea

zatoz gu ezagutzera

94 681 00 50

sanjose@durangojesuitak.org

www.informazaitzez.eus



"Gidariak eta eskiatzaileak konexio bat behar dute"

Kirola - ELORRIO

> **ESKIA.** Lander Gallastegik ikusmen desgaitasuna du, baina hori ez da oztopo eskia praktikatzeko, eta domina bat baino gehiago irabazi zuen eski egokituko Espainiako txapelketetan. Andrea Garcia gidariaren laguntza izaten du. Hark markatzen du bidea eta Gallastegik ziztu bizian jarraitzen dio aldapan behera. Horregatik, bien arteko konfiantza inportantea dela dio elorriar gazteak. "Nire aurretik joan eta berak gidatu behar nau. Ni bide zuzenetik eramateko ardura dauka. Gidariak eta eskiatzaileak elkar ezagutu behar dute eta konexio hori sortu behar da bien artean. Guk, zorionez, harreman ona dugu", adierazi zuen.



Auto berriagaz bidean da berriro Lebeiti

Kirola - IURRETA

> **AUTO LASTERKETAK.** Jose Ignacio Erdoiza *Lebeiti*k ez du erretiratzeko asmorik. Momentuz ez, behintzat. Renault 5 mitikoa istripu batean txikitu ostean, beste auto bat eskuratu zuen, Renault Megane Trophy, aurrekoa baino indartsuagoa eta esklusiboa dena. Estatuan ia beste inork ez daukan auto bategaz itzuli zen errepideetara auto gidari iurretarra.



"Sortzea oso prozesu intimoa da niretzat"

Kultura - MALLABIA

> **MUSIKA.** Izaro Andres musikariak *Eason* izeneko lana kaleratu zuen otsailean. Doinu ezberdinekin ausartu da bere bigarren lanean: bluesa, runba... Bere sormen prozesuari buruz hitz egin zuen. "Nire kabuz egiten dut. Gero, abestiak eginda daudenean, musikariei erakusten dizkiet, eta denon artean janzten ditugu. Baina sortzea oso prozesu intimoa da niretzat, eta bakarririk nagoela egiten dut", adierazi zuen.



"Triatloia lehia baino gehiago da guretzat"

Kirola - DURANGO

> **TRIATLOIA.** Serafin Bereziartua *Txela*, Paul Bereziartua eta Anne Bereziartua. Esperientzia handia duen aitak, umetatik bokazioa erakutsi duen semeak eta kirola gozatzeko darabilen alabak Mugarra Triatloi Taldeko familia berezienetakoa osatzen dute. "Triatloia lehia baino gehiago da guretzat", dio *Txelak*. Gainera, triatloiaren bidez munduko hamaika herrialde ezagutzeko aukera izan dute.

Zorionak eta urte berri on!

FURESA
FUNDICION NODULAR



Jose Martin Urrutia 'Txotxe' antzerkigile handiari, agur

Kultura - DURANGO

> **ANTZERKIA.** Gaixotasun batek otsailan eraman zuen Jose Martin Urrutia *Txotxe*. Artista elgoibartarrari esker, antzerkiak hainbat belaunaldi markatu ditu Kurutziaga Ikastolan, eta baita Karrika taldean ere.

Antzerkiko zuzendaria izateaz gainera, hezkuntza bereziko irakaslea izan zen. Antzerkigintzari lotutako hainbat proiektu gidatu zituen. 1998an Karrika taldearen sorreran figura garrantzi-

tsua izan zen. Hamarkada bi geroago, Karrika erreferentea da Euskal Herriko antzerkigintza amateurrean. "Txotxeren lorpena da hori, bere talentuari eta lanari esker gertatu da", nabarmendu zuten antzerki taldekoek. Eneko Sagardey Karrikako harrobitik irtendako aktorea da. Txotxe hil aurreko gauean Goya saria entregatu zioten *'Handia'* filmean egindako lanagatik, eta hari eskaini zion.



Eneko Boveda eta Ane Ibarra, bikote eta futbolari

Kirola - DURANGALDEA

> **FUTBOLA.** Futbolariak, bikotea eta 2016az geroztik gurasoak dira Eneko Boveda eta Ane Ibarra. Desberdin bizi dute futbola, Ibarra elorriarrak azaldu zuen moduan. "Nire kasuan, futbola barrutik bizi ezik ez duzu jokatu. Enekorena desberdina da, ogibidea delako. Nire zaletasunik gustukoena da futbola". Bovedari futbola "ikaragarri" gustatu izan zaio beti. "Betidanik gainera. Partiduak ikustea, futbolaz dakien bategaz berba egitea, taktikak komentatzea, jokalaria... edozein kategoriatan gainera, Lehenengo Mailari zein Hirugarren Mailari buruz", onartu zuen futbolari durangarrak.

Elorrioko Gaztetxeak 30 urte egin ditu

Herririk herri - ELORRIO

> **URTEURRENA.** Hiru hamarkada joan dira Elorrioko Gaztetxea sortu zutenetik. Ospakizunetan iraganari bai, baina batez ere etorkizunari begiratu zioten. "Belaunaldi berrien garaia da, eurak dira Gaztetxearen etorkizuna", adierazi zuten.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA

CEPA DURANGO HHI Doako irakaskuntza ofiziala



Laubideta kalea, 6 (Durango) · Tel: 946 814 253 / 946 215 902
www.epadurango.hezkuntza.net



Eneko Sagardoyk Goya saria irabazi du

Kultura - DURANGO

> **ZINEMA.** Aktore berririk onenaren Goya saria irabazi du aurten Eneko Sagardoy aktore durangarrak. Euskarazko lan batetik Goya saria jaso duen lehen aktorea bihurtu da. Guztira, 10 sari eskuratu ditu *Handia* filmak. "Pelikula saritu dute", Sagardoyren ustez. "Itzela da talde osoarentzat. Goya sarietan, sari gehien jaso dituzten pelikulen artean *Handia* hirugarrena da", nabarmendu du aktore durangarrak.

Aurten sari garrantzitsu bat baino gehiago irabazi du Sagardoyk. Goya sari-keta igaro eta handik hilabete ingurura, aktore berririk onenaren saria eman zion Espainiako Aktoreen Batasunak.

Handia filmagaz ez ezik Errementari filmagaz ere jaialdiz jaialdi ibili da Sagardoy. Bere azkeneko saria azken film horrengatik eskuratu du, hain zuzen. Utahko Film Quest jaialdian izan zen, AEBetan, irailean. Bigarren aktorerik onenaren saria eman zioten.



Fauste auzokoan kexa, errepideko arriskuaz

Herrikerri herri - IURRETA

> **AZPIEGITURAK.** Fauste auzotik Arriandi industrialderaino, N-634 errepidearen albotik, bidegorri bat egokitzea eskatu zioten bizilagunek Iurretako Udalari. "Egoera arriskutsua" dela adierazi zuten. "Egun askotan egin behar dugu ibilbide hori oinez, geure burua arriskuan jarrita". Udal ordezkariak azaldu zutenez, egoera hau konpontzeko lanean ari dira.

Eneritz Azpitarte, Zaldibarko alkate berria

Herrikerri herri - ZALDIBAR

> **ALKATETZA.** Arantza Baigorrik (EH Bildu) Zaldibarko alkatetza utzi zuen, arrazoi pertsonalengatik. Bere tokia Eneritz Azpitartek hartu zuen. Proiektuari jarraipena emango ziola aurreratu zuen alkate berriak. "Ilusioz hartzen dut erronka berri hau eta orain arte egindako lanaren fruituak datozen hilabeteetan ikusiko dira", adierazi zuen.



Ziritza eta Bustintzako bizilagunen kezak

Herrikerri herri - DURANGO

> **AUZOAK.** Ziritza eta Bustintzako bizilagunek euren kezken berri eman zuten: lapurretak, puntu beltzak, urbanizazio falta... San Rokeko promozio publikoko etxeak 2015ean zabaldu zirenetik, "ahaztuta eta bakartuta" sentitzen dira Zaloa Uribe bizilagunak salatu zuenez. "Hiru urtean gutxienez lau bider sartu dira lapurrak", esan zuen. Lursailen zaintza faltak bestelako arazoak ere ekarri dizkie.



0 - 18 URTE
HAZI eta HEZI gurekin



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA



ibaizabal
IKASTOLA



ikastolen elkarte

Larrea z/g - Amorebieta-Etxano - Tel.: 946 732 950
zornotza@ikastola.eus - www.zornotzaikastola.eus



Berdintasunera bidean, greba feminista martxoaren 8an

Herririk herri - DURANGALDEA

> FEMINISMOA. 2018ko martxoaren 8a historiara pasatuko da Durangaldean eta Euskal Herrian, izan ere, emakumeen egunean greba feminista egin zen lehenengoz. Munduko beste hainbat tokitan

egindako planto deialdiagaz bat egin, eta Durangaldeko mugimendu feminista grebara gehitu zen, 170 bat herrialdetako emakumeekin batera. Goizean goizetik ekin zieten emakumeek lanuzteei eta

mobilizazioei. Durangon, esate baterako, 2.000 emakumek katea osatu zuten erresistentziatik Kurutziagako zahar-etxeara arte, zaintza grebari erreferentzia egiteko. Herri askotan mobilizazio jendetsuak egin ziren; horietako ugaritan, etxetik eramandako produktuekin bazkari autogestionatuak egin zituzten, kontsumo greban zeudela adierazteko.

ANBOTOk emakumeek ere planto egin zuten eta erredakzioan adostasunera heldu ziren mobilizazioetan parte hartzeko.



250 ardo mota ezberdin Ardo Saltsan Azokan

Herririk herri - DURANGO

> AZOKA. 50 mahaitan 80 upategiren 250 ardo ezberdin dastatu ahal izan ziren Ardo Saltsan Azokan. Hamaikagarren edizioa martxoaren 10ean egin zen. 2006. urtean Iñaki Uribek bere dendan antolatu zuen lehenbizikoz, eta eduki zuen arrakasta ikusita, Juanpe Azkarategaz eta Roberto Sarriugartegaz batera Ardo Saltsan proiektua jarri zuten martxan. Sarriugarteren berbetan, Durangoko tabernetan eragin positiboa eduki du azokak, izan ere, eskaintza eta ardo kultura zabaltzen lagundu die.

Mikeldiko idoloa Durangora?

Herririk herri - DURANGO

> MIKELDIKO IDOLOA. Mikeldiko Idoloa Durangora ekartzeko, epaitegietara jotzea aztertu zuen Durangoko Udalak. Hainbat bider eta hainbat bidetik eskatu da Bilboko Euskal Museoa dagoen eskultura historikoa Durangora ekartzea, baina ezezkoa izan da beti erantzuna; monumentua kaltetzeko arriskua izan da erabilitako arrazoia.

PPk ezik, gainontzeko alderdi guztiek onartu zuten EH Bilduk aurkezturiko mozioa. Epaitegietara jo aurretik, aditu batek txosten bat osatzea proposatu zen.




Escudero misiolaria, estatuko zaharrena

Herririk herri - BERRIZ

> ELIZA. 1943az geroztik, Berrizko Mesedeetako komentuko misiolaria da Elvira Escudero zaragozarra. Otsailean 101 urte bete zituen eta Bilboko elizbarrutiak jakitera eman zuenez, Escudero munduan zehar dabilen Estatuko misiolarik zaharrena da.

1943an, 26 urte zituela, Elvira Escudero Berrizko Mesedeetako komentuan sartzea erabaki zuen. 1948an Japoniara joan zen misiolari eta ordutik han dabil misiolari lanetan. Eskoletan katekesia ematen ibili da.



Deneriko hareak motak Hontza Museoan

Kultura - MAÑARIA

> **MUSEOA.** *Munduko Hareak* erakusketan, desertu, hondartza, mendi, eta poloetatik ekarritako hareak bildu zituen Hontza Museoak. Erakusketa hiru ataletan banatu zuten: Euskal Herriko hareak, Espainiako hareak eta bost kontinenteetakoak. Guztira, mundu osoko 170 bat lagin batu zituzten poteetan. Museoko lagun eta kolaboratzaileen laguntzagaz batu ahal izan zituzten horrenbeste lagin.



350 sinaduratik gora aisialdirako aukera eske

Herririk herri - ABADIÑO

> **AISIALDIA.** Zelaietako guraso talde batek 350 sinaduratik gora bildu zituen umeen aisialdirako dauden gabeziak betetzeko alternatiba eske. Aste Santuko oporren aurretik udaletxean entregatu zituzten sinadurak. “Zelaieta oinezkoentzat egokitzeko obrak direla-eta, ume eta gurasoentzat aterpeak egiteko aukera kontuan hartzea gura dugu”, esan zuen Amaia Lasuen guraso taldeko kideak. Hala ere, hutsunea Abadiño osoan dagoela nabarmendu gura izan zuen Ane Etxeandia kideak ere, ez Zelaietan bakarrik.

Gaztelekua erabilera anitzeko gune gura dute

Herririk herri - IZURTZA

> **GAZTELEKUA.** Izurtzako Gaztelekua erabilera anitzeko gune modura berrantolatu gura du udalak. Tokiko Agenda 21eko batzar batean proposatu zuten gaia herritar batzuek. Proiektua aurrera eramateko, 5.400 euro gorde zituen udalak. 2019ko aurrekontuetan, 61.000 euroko diru atala Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitera bideratu zuten, gainera.



IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200
www.iurreta.eus



Iurreta
Eleizateko Udala



HAZ Herriarren
Arreta Zerbitzua
Servicio de
Atención Ciudadana

Bidebarrieta, 5
(48215 - Iurreta)



Pentsio duinen defentsan, mobilizazioak Durangaldean

Herririk herri - DURANGALDEA

> PENTSIOAK. Kalera irten dira pentsio-dunak. Haserre daude eta nahikoa dela esan dute. Duintasunez bizi ahal izatea nahi dute. Otsailean, milaka erretiratutak Bilboko kaleak bete zituzten eta, martxoaren 17rako, beste protestaldi bat egitea pentsatu zuten, handiagoa oraindik. Horretarako, herritar guztiak egon ziren parte hartzerara deituta. Berrizen, Durangon, Iurretan eta Zornotzan antolatzen hasita zeuden eta ordezkari bana batu zuten ANBOTOk mahai baten inguruan.

"Urte askoan egon gara eusten, geure buruari esanez zerbait egin beharko genukeela... eta, halako batean, pentsioak %0,25 igoko direla dioen gutuna hel-du zaigu. Gutun-paperetan hori baino gehiago gastatu dute!", azaldu zuen Itziar Madariagak.

Durangaldeko hainbat herritan astelehenero protestak antolatu dituzte pentsio duinen alde. Azaroan, Durangaldeko pentsiodunek manifestazioa egin zuten, Durangon.



Karmele Zamalloa bonbardaketaren lekuko

Herririk herri - DURANGO

> MARTXOAK 31. Durangoko bonbardaketa gogoan izan zuten martxoaren 31n. Karmele Zamalloa Zarate 94 urteko iurretarrak Amatzu auzoko Bargundia baserrian bizi izan zuen kolpisten bonbardaketa. "Ea osatzen garen", azaldu zuen Zamalloak. Bestalde, egun horretan hilerrian egindako ekitaldian Aitziber Irigoras Durangoko alkateak azaldu zuenez, "gure seme-alabek euren herriaren historia ezagutzeko eskubidea dute".



Heriotza mehatxua jaso zuen Rios alkateordeak

Herririk herri - DURANGO

> SALAKETA. 2005ean Ofelia Fernandez hil zuen gizonak heriotza mehatxua egin zion Pilar Rios alkateordeari; eskuagaz tiro egiteko keinua egin zion.

Felipe Ardanza Ofelia Fernandez bikoitekide ohia zen. 17 urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta hirugarren gradua lortuta zegoen kalean.

'Garita', bizitza oso bat zesta-puntari lotuta

Kirola - DURANGO

> ZESTA-PUNTA. Jai Alai zesta-punta eskolako arduraduna izaten jarraitzen du Pedro Mari Garcia Garitak, iaz Ezkurdi Jai Alai pilotalekuko tabernako arduraduna izateari utzi eta gero. AE-Betan profesional moduan aritu zen Garita 70eko eta 80ko hamarkadetan, eta penaz ikusten du egungo zesta-puntaren egoera. Xistera elkartearen bidez, ikastetxeetara joaten ari dira zesta-punta sustatzera. "Zaletasuna falta da eta zesta-punta eskolak lanean ari gara hori aldatzeko; nola jokatu erakusten ari gara, besteak beste".



32 denda Durangoko Aukera Azokan

Herririk herri - DURANGO

> MERKATARITZA. Azken urteetako postu kopururik handienagaz zabaldu zituen ateak Durangoko Aukera Azokak Landako Gunean. Durangoko, Iurretako eta Abadiñoko 32 establezimenduk parte hartu zuten.

DURANGO KABILDUOSTE



Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona eskusiboan**, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren,
proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041



Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

www.sukia.com



Berton Bertokoa Legebiltzarrean jantokien eskaerak plazaratzen

Herririk herri - DURANGALDEA

ELIKADURA. Euren umeek eskolan bertako eta sasoiko produktuekin elikatzea gura dute, eta eskolako sukaldean bertan kozinatuta gainera. Baina lau ikastetxe publikotan ez dute sukalde-

rik; Eusko Jaurlaritzari eskaera egin zioten hori egia bihurtzeko. Udalei ere laguntza eskatu zieten. Azaldu zutenek, hiru eskari plazaratu zituzten batzorde berezi horretan. Lehena, legea aldatzea,

eskola publiko bakoitzak bere eredua erabakitze aukera izan dezan. Bigarrrena, Atxondo, Zabalarra (Durango) eta Zaldibarko eskoletan eta Iurretako Orobiogoitia institutuan sukaldea ipintzea. Hirugarrena, Durangaldeko ikastetxe publikoetan bertakoa eta sasoikoa kozinatu ahal izateko pausoak ematea. Ekainean azaldu zutenek, Zornotzako eta Mallabiko eskolak batuta, 12 dira dagoeneko Berton Bertokoa dinamikaren barruan dauden ikastetxeak.

San Antonio auzoko bizilagunen protestak

Herririk herri - ZORNOTZA

MOBILIZAZIOA. Errepide erdian protestan jarrita, segurtasun neurriak eskatu zituzten San Antonio auzoko bizilagunek. Egun batzuk lehenago, emakume bat hil zen han inguruan, kamioi batek harrapatuta. Istripua salatzea eta errepidea gurutzatzeko pasabide seguru bat eskatzea izan zen protestaren helburua. Hain zuzen ere, gune horretan ez dago ez zebrabiderik ez bidea gurutzatzeko pasagunerik.



BSB taldea Matienako jaietan, lehenbizikoz

Akuilua - ABADIÑO

AKUILUA. Urte emankorra izan da Ekaitz Herrera kazetari abadiñarrentzat. ETB1eko Herri Txiki, Infernu Handi saio arrakastatsuko zuzendariordea da. Horrez gainera, lagunekin osatzen duen Basque Street Boys taldeagaz Matienako San Prudentzioetan kontzertua eskaini zuen lehenbizikoz.



Gune berria IU Gazte programa garatu ahal izateko

Herririk herri - IURRETA

GAZTEAK. Eraikin hexagonala erabiltzeko baimena eman zion Eusko Jaurlaritzak udalari, apirillean. IU Gazte programa garatzeko erabiliko dute, herriko kultur eskaerari eta gazteen aisialdirako beharrezanean erantzun bat emateko. Etxego izena jarri diote eta azaroan jarduerak antolatu zituzten eraikina egokitzeko.

Txoritxu Alai: mende erdi umeekin dantzan

Kultura - DURANGO

> **DANTZA.** 50 urte igaro dira Tronperriren bueltan zebilen lagun talde batek Txoritxu Alai sortu zuela. Umeak trebatzeko zegoen gabezia betetzeko asmoz hasi ziren lanean Txoritxu Alaiako kideak. "Inguruko herrietan ere gabezia zegoen eta hori aldatzeko gogoz jaio zen taldea". Urteurrena ospatzeko, egun osoko egitaraua antolatu zuten. Bere garaian, ia 2.000 bazkide eduki zituen dantza taldeak, 1.000 ume inguru eta 900 heldu. Egun, 200 bazkidek osatzen dute taldea.



27 ekoizle Garaiko landare azokan

Herririk herri - GARAI

> **NATURA.** Urteekin hazi egin den ekimena da Garaiko Landara eta Lorezaintza Azoka. Seigarren edizioa izan zen 2018koa. 27 ekoizlek parte hartu zuten, eta horietako bederatzi Durangaldekoak izan ziren. Sasoiko loreak, kaktusak, landare txikiak, baserrirako erremintak... deneriko gaiak egon ziren aukeran azokan, baita egurragaz, zeramikagaz eta loreekin lan egiten duten artisauen produktuak ere.

'Muga' liburua kaleratu du Arruabarrenak

Kultura - DURANGO

> **ARGAZKILARITZA.** Jesus Mari Arruabarrena durangarrak *Muga* liburua kaleratu du aurten. Liburuak ardatz bi ditu: Orson Wellesen *Le Pays Basque* pelikula eta idazleak Euskal Herritik egindako bidaia bat. Liburuan, lurraldetasunari buruzko hainbat gogoeta plazaratu ditu argazkilari durangarrak: Comète sarea eta Vallespin fortifikazioa, adibidez. Bildumako 50 argazkigaz erakusketa jarri zuen Bizkaiko Foru Liburutegian.



Mundialak gara! Eskerrik asko!

Bizkaia
goazen



Udalak gazte alokairuko hamasei etxe eskainiko ditu

Erreportajea - DURANGO

> **ETXEBIZITZA.** Gazteen emantzipazioaren arazoari aurre egiteko, Durangoko Udalak Faustegoienako babeseko sei etxe eskainiko ditu gazteen alokairua sustatzeko; etorkizunerako, bertan eraikitzen dabilen 118 etxeetatik 16 izango dira gazteen alokairurako. 18-30 urte bitarteko gazteek eskatu ahalko dute etxea, eta txandakako sistema izango da: urtebete egongo dira etxean gutxienez, eta hiru urte gehienez.

Gaindegia Euskal Herriko gizarte eta ekonomia garapenerako behategiaren arabera, Durangon 700 euroan dago batez besteko alokairua. Hiriburuez aparte, prezio altuenen sailkapenean goi-goian dago Durango.

Bestalde, Zabalduko Ditugu taldeak manifestazioa egin zuen, gazteentzako "alokairu duina eskazeko". Gaindegiaren esanetan, 30 urte bueltan dago emantzipazio adina.



Bidegorri sarea, Durangaldea batzeko

Herririk herri - DURANGALDEA

> **INGURUMENA.** Durangaldeko zenbait herri batuko dituen bidegorri sarea eratzeke asmoz, EH Bilduk mozioak aurkeztu zituen hainbat herritan. Bizkaiko Foru Aldundiagaz ere jarri ziren harremanetan elkarlana bultzatzeko. "Ingurumena errespetatzen duten herriak bultzatu behar ditugu", azaldu zuten.



300 lagun zazpi orduz Hitzez eta Ahotsezen

Kultura - DURANGO

> **LITERATURA.** Lurra' ardatz hartuta, 300 lagun ia zazpi orduz aritu ziren irakurtzen Plateruenean, maiatzaren 4an. Euskal literatura jendarteratzeko asmoz antolatzen den ekimenak bosgarren edizioa izan du aurtengoa. Nobedade lez, bazkaria antolatu zuten Durangoko kulturegunean. Bazkaldu ostean, irakurtzeari ekin zioten berriro.





Leche
BIZKAIA
Esnea

Baserria zure eskuetan



entera
1 litro
LECHE UHT DE CASERIO

semidesnatada
1 litro
LECHE UHT DE CASERIO

desnatada
1 litro
LECHE UHT DE CASERIO

www.bizkaiaesnea.com

"Ondo sentitzen naiz kameraren aurrean"

Akuilua - ZORNOTZA

> MODA. Mister Espainia izatea lortu guran, Tenerifera joan zen Jon Vaqueri- zo lemoarra. Durangoko taberna batean lan egin arren, modan jardutea du amets. "17 urtegaz Mister Bizkaia izateko lehian aurkeztu nintzen, baina ez nuen castinga pasatu; 21 urte izan arte ez nintzen beste lehiaketa batera aurkeztu, baina ordutik mundu honetan sartuta nabil".



Donien Atxa arazorik barik altxatu dute

Jaiak - ABADIÑO

➤ **MATIENAKO JAIK.** 2017ko Donien Atxaren jasotze ekitaldiak inoizko oihartzunik handiena eduki ostean, aurtengoa arazorik barik egin dute. 65.000 euroko aurrekontuagaz, 50 ekitalditik gora egon ziren Traña-Matienako jaietan. Abadiñoako Muted, Basque Street Boys eta Eskupitajo taldeek jo zuten bertako jaietan. Jaietako kartel lehiaketa Ignacio Conde abadiñarrak irabazi zuen.

Profesionaletako lehen garaipena Bizkarrak

Kirola - MAÑANA

► **TXIRRINDULARITZA.** Mikel Bizkarra mañariarrak Aragoiko Itzuliko azken etapa irabazi zuen, bere profesional mailako lehenengoa. Horrez gainera, Espainiako Itzulian oso borrokalari ibili zen, eta zaleen babesa jaso zuen Euskadi Muriaseko txirrindulariak, Oizeko etapan besteak beste. Onenekin lehiari aritu da denboraldi osoan.



**Mugak Zabalduz
karabanari, babes**

Herririk herri - DURANGO

➤ **ERREFUXIATUAK.** Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideek hainbat mobilizazio antolatu dituzte urte osoan zehar. Europako migrazio arloko politikak salatzeko asmoz, aurreko urteetan karabanak egin zituzten, Greziara eta Melillara. Aurtengo edizioko karabanak Euskal Herria zeharkatu zuen apirilean. Hendaiatik irten zen karabana, eta Durangoko Ongi Etorri

Errefuxiatuak plataformak elkarretartatzen deitu zuen egun horretan bertan, Andra Marian, ekimena babesteko. Hilaren 30ean amaitu zen ibilbidea, Bilbon.

Bestalde, uztailen, lau durangar Mugak Zabalduz karabanagaz Italiara abiatu ziren bidaian, Mediterraneo itsasotik ailegatutako errefuxiatuei elkartasuna erakusteko asmoz. Estatuko ehundik gora kolektiboz osaturiko karabana horregaz, EBren politika migratorio, ekonomiko, komertzial eta ingurumenarekikoak salatu gura zituzten.





TXINTXIRRI
**ELORRIKO
IKASTOLA**

San Pio, 3
ELORRIO
Tel.: 946 582 261
elorrio@ikastola.eus

**ARDURAZ HEZI,
NORTASUNEZ HAZI**

www.elorrikoikastola.eus

**Ateak zabalik dituzue,
etorri eta ezagutu gaitzazue!**







ETAren desegitea berbagai Garate eta Hernandezegaz

Herririk herri - DURANGALDEA

> POLITIKA. Maiatzaren 4rako ETAren desagerpena iragarri zuten eta, horren harira, ANBOTOk Mari Carmen Hernandez eta Ibon Garate elkarrizketatu zituen. Aurrez ere, ETak ibilbide armatuaren

amaiera iragarri zuenean, eurengana jo genuen. 2000ko ekainean ETak Jesus Mari Pedrosa hil zuen, Mari Carmen Hernandezen senarra. Ordutik, durangarrak

elkarbizitzaren alde lanean dihardu. Horrez gain, presoaren dispertsioaren aurka dagoela azaldu izan du maiz. "Hasieratik uste izan dut senideek ez dutela zertan sufritu, eta dispertsioak ez zuela existitu behar. Senide batzuek ezin dute ezta joan ere egin", adierazi zuen Hernandezek. Bestalde, haxe adierazi zuen ETak helarazitako mezu autokritikoaren inguruan: "Barkamen selektiboa eskatu diete euren arabera gatazkan zerikusirik eduki ez dutenei. Nortzuk dira horiek? Gurago nuke barkamen hori eskatu ez balute; niri, behintzat, ez dit ezer esaten", azaldu zuen. Ibon Garateri, berriz, 2000. urteko otsailean anaia Ruben hil zitzaion, preso bati bisita egiteko bidaian istripua izanda. Ordutik, Garatek dispertsioari amaiera ematea aldarrikatzen du. "Gaur egun presoak kondena bat betetzen ari dira, eta gu ere bai. Dispertsioa amaitzean, gure kondena amaituko da. Nik ez dut ezer egin; senide batek ez du aukeratzen senide izatea. Tokatu egiten zaizu, eta edozein ideologiatakoa izan zaitezke. Kondena itzela da: bizitza, denbora, dirua... Guztia baldintzatzen digu", adierazi zuen otxandiarrek. Bestalde, dispertsioa amaitzea erabaki politiko bat izango dela adierazi du. "Nire ustez, orain ahalik eta gehien presionatu behar dugue estatua", amaitu zuen Garatek.



Durangaldea bizi eta ezagutu!

*Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa*

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Intsumisioak markatu zuen belaunaldia

Herririk herri - DURANGALDEA

> **INTSUMISIOA.** 25 bat urte dira intsumisioak, armadari uko egiteko jarrerak, ez-tanda egin zuenetik. Beste gazte askoren moduan, Iñigo Mendibilek, Zigor Murgoitio eta Haritz Leanizbarrutiak kartzela ezagutu zuten. Durangaldeko hiru lagunak harro daude, lortu zuten-eta helburua.



Hutsik dauden etheen inbentarioa Zaldibarren

Herririk herri - ZALDIBAR

> **GIZARTEA.** Gazteen alokairu soziale-rako programarako babes politikoa lortu guran, Barrura ekimenak mozioa aurkeztu zuen maiatzean Zaldibarren egindako osoko bilkuran. Bertan, gobernu taldeak Alokairu Sozialerako Programa betetzeko konpromisoa hartu zuen eta etxebizitza hutsen inbentarioa egingo zuela jakitera eman zuen.



Amanda Spratt garaile Emakumeen Biran

Kirola - DURANGALDEA

> **TXIRRINDULARITZA.** XXXI. Emakumeen Birak ustekabeko amaiera izan zuen. Azken etapan, hamargarren postuan zihoan Amanda Spratt australiar-rak Urkiolako gaina bakarrik igaro eta bakar-bakarrik egin zituen helmugarai-noko 50 kilometroak. Tropela ez zen gai izan Mitchelton Scott taldeko txirrindularia harrapatzeko eta Spratek garaipena lortu zuen erakustaldia emanda.

Iruñeko sententziaren aurka protesta

Herririk herri - DURANGALDEA

> **ERASOA.** 2016ko sanferminetan neska bati taldean egindako sexu erasoari buruzko epaia publiko egin zuten maiatz-ean. Auzitegiak sexu abusu delituagatik zigortu zituen akusatuak, eta ez sexu erasoagatik. Erabakiak hainbat herritarren haserre eragin zuen eta sententzia publiko egin zuten egunean bertan protestak egin zituzten Durangaldean.



"Ezarri dudan marka ontzea dut helburu"

Kirola - IURRETA

> **ATLETISMOA.** Goi mailako kros denboraldia egin ostean, pistako denboraldi bikaina ere egin du aurten June Arbeok. Atleta iurretarrak marka berria ezarri zuen 3.000 metroko oztopodun proban 20 urtez azpikoetan: 10 minutu eta 39 segundokoa. Arbeok aitortu zuenez, "aurrera begira, berriz, ezarri dudan marka ontzea dut helburu". Bestalde, 2018an munduko txapelketan parte hartu zuen Finlandian.



MALLABIKO UDALA
Tel.: 943 171 461
www.mallabia.eus





"Ama izateagatik diskriminatu nautela onartu dute"

Erreportajea - ZORNOTZA

> LANA. Ama izan ostean, "sexuaren araberako diskriminazioa" jasan zuen Janirek (Zornotza, 1988). Hala onartu zioten auzitegiek, eta kalte-ordaina ordainduko dio Zornotzako Abrasivos Texajax enpre-

sak. "Oso txarto pasatu nuen epaiketan, pentsatuz egindako guztiak ez duela ezer-tarako balio. Baina, azkenean, epaileak aitortu du oinarritzko eskubideak urratu direla, haurdun egon naizelako kaleratu

nautela, diskriminatu egin nautela", adierazi zuen Janirek. Epaitegiek arrazoa eman zioten arren, bost urtez egin zuen administrazio lana utzi behar izan zuen. "Urtarrilean lanera bueltatu nintzen, hiru egunean eutsi nion. Ordenagailu eramangarri batez, gela batean neu bakarrik, isolatuta, eta emandako lanerako beharrezkoa nuen informaziorako inolako sarbiderik barik. Nire ordezkioak zirenei enpresako datuak eskatu behar izaten nizkien. Oso baztertuta sentitu nintzen, jarrera oso bortitza izan zuten nigan", adierazi zuen.

Bizi zuen egoera ikusita, salaketa jar-tzea erabaki zuen. "Prozesu oso gogorra izan da, baina niretzat txarragoa izango zen ezer egin ez banu. Egin behar nuena egin dut eta epaileak arrazoa eman dit", jarraitu zuen.

Bestalde, Janirek eskerrak eman zizkien LAB sindikatuari eta Zornotzako Mugimendu Feministari, "borrokan bi-delagun" izan zituelako. Gainera, herritarren partetik izan zuen babesa irribarre zabalagaz eskertu zuen.

Horrez gain, bere egoera beretsuan dauden emakumeak salaketa ipintzera animatu zituen. "Bidea gogorra bada ere, gogorragoa delako oraindik injustizia hauen aurrean ezer egin barik geratzea", jakitera eman zuen.



"Palestinarren egoera jasanezina da"

Erreportajea - IURRETA

> GIZARTEA. Maiatzean egoera larritu egin zen Palestinan, Nakbaren (Palestinarren ihesa) eta Israelen sorreraren 70. urtemugan AEBek enbaxada zabaldu zutenean Jerusalem. Israelgo armadak tiroz erantzun zuten palestinar zibilen mobilizazioei, eta Anis Hawari errefuxiatu durangarrak arduraz berba egin zuen egoera horren aurrean. "Egoera larritzen doa uneoro; oso gogorra da palestinarrentzat. Jasanezina da eta edozein momentutan leher daiteke", esan zuen. Israelen okupazioaren ondorioz ihes egin behar izan zuten milaka familieta-ko batekoa da Hawari.

24 orduko pediatria zerbitzua eskatu dute

Herririk herri - DURANGO

> OSASUNA. Hainbat guraso eta aiti-ta-amamak 24 orduko pediatria zerbitzuaren aldeko plataforma sortu zuten Durangon. "Gaia osoko bilkurara eram-zen, eta ikusirik gobernu taldea ez dagoela prest pediatria zerbitzua her-ritarren beharrezanetara egokitzeko eta konponbideak bilatzeko, plataforma eratzea erabaki dugu", azaldu zuten.



Barraskiko hiru kalteturi dirua itzuli behar diete

Herririk herri - ATXONDO

> EKONOMIA. 2008an, Norvisa enpresak hiru fasetan burutu beharreko bost eraikineko proiektu bat hasi zuen Atxondon. 2010erako aurreikusten zuten proiektua amaituta izate- a. Lehen fasean etxebizitza bloke bat egin zuten, baina ez zituzten etxebizitzok bana- tu. Proiektu honek hainbat kaltetu eragin zituen eta epai batek jakitera eman duenez, Bankiak 202.776 euro itzuli beharko dizkie hiru kalteturi.



GAURSA
CAR WASH

Autoak garbitzeko gune premium
Berria

Bakarra Euskadin



Arriandi Auzoa, 12 lurreta (Bizkaia) Nissan eta Renault Gaurisa instalazioetan



Azkenean, Mallabiak ez du Gipuzkoako hondakinik hartuko

Herririk herri - MALLABIA

> GIZARTEA. Mallabiak ez du Gipuzkoako hondakinik jasoko. Lurralde bietako aldundiek adostutako lankidetza hitzarmenari esker, Gipuzkoak bermatuta

du bere azpiegiturretan hartu ezin duen hondakinaren tratamendua. Beraz, bere sasoian abiatutako lehiaketa publikoa bertan behera utzi zuten.

Betearte enpresak Gipuzkoako sobe-rakinak Mallabiko lurretan jasotzea pro-
posatu zuenetik, Mallabiko Udala horren
aurka agertu zen, eta udal ordezkariak
euren esku zegoen guztia egiteko prest
agertu ziren. Lankidetza hitzarmenaren
berria jasotakoan, Igor Agirre alkatea
"pozik" agertu zen. "Eskerrak eman gura
dizkiot Bizkaiko Aldundiari eta Aldundi-
ko Ingurumen diputatu Elena Unzuetari.
Ahalegin handia egin du arazoari irtenbi-
dea bilakatzeko", esan zuen alkateak.

Politikarien barkamena sorginkeria zigorreatatik

Erreportajea - DURANGALDEA

> GIZARTEA. Orain 400 urte baino gehia-
go hainbat pertsona kartzelaratu eta hil zi-
tuzten Durangaldean sorginkeria lepora-
tuta. Garai hartan ezarritako sorginkeria
zigorrak gogoratzeko asmoz, Gerediaga el-
karteak ekitaldia antolatu zuen ekainean.
Gerediagako foru zelaian, Durangaldeko
ordezkari politikoek barkamena eskatu
zieten sorginkeria leporatuta errepresioa
jasan zutenen ondorengoei.



Haurrekin egoteko guneak eskatu dituzte

Herririk herri - ZORNOTZA

> HEZKUNTZA. Altzoan hazkuntza tal-
deak barneko espazio finko bat eskatu
du gurasoak haurrekin egoteko. Antze-
ko bizipen eta errealitateen inguruan
apurka batzen joan diren ama taldeak
elkartzeko eta talde moduan garatzeko
espazio aproposagoa gura dutela alda-
rrikatu dute azken urtebetean.



Astebeteko ukoa jantoki zerbitzuari, Atxondon

Herririk herri - ATXONDO

> HEZKUNTZA. Atxondoko Eskolan as-
tebeteko plantoa egin diote catering zer-
bitzuari. Gurasoek egindako lanagaz eta
herritarren laguntzagaz eman diete jaten
gaztetxoei. "Astebeteko planto hau egitea
oso garrantzitsua zen guretzat, honek
oihartzun garrantzitsua izango baitu es-
kualdean", adierazi zuten Guraso Elkar-
teko kideek.





Kulturalak Bigarren B Mailara igotzea lortu du

Kirola - DURANGO

> **FUTBOLA.** 2019an 100 urte beteko dira Durangaldeko Kulturala sortu zenetik, eta jokalariek oparirik onena egin diote klubari Bigarren B Mailara igota. Igoerako partiduaren osteko sentimenduez galdetuta, Andoni Errasti taldeko atezainak partidu amaierako sentimendua "ezin dela berbe-kin adierazi", aitortu zuen. "Poztasuna, ilusioa... sentimendu asko batera bizi izan ditugu. Azken finean, merezi dugun lorpena izan da", adierazi zuen Errastik.

Mikel Pradera aurrelariak esan zuen talde lana eta Kulturalaren zaleak ezinbestekoak izan zirela igoera lortzeko.



"Irrikan nago Japoniara joateko"

Akuilua - ZORNOTZA

> **YOUTUBERRA.** Bideo-jokoak, moda, argazkigintza eta makillajea ditu pasio sare sozialetan Erika in Blue lez ezaguna den gazteak. Japoniarren zale amorratua den youtuberrak sare sozialekin eta moda munduagaz lotuta ikusten du bere etorkizuna. Horrez gain, Japoniagaz lotutako guztiak txikitatik erakartzen duela esan zuen. "Irrikan nago Japoniara joateko", aitortu zuen.

Durangoko auzoetan garbiketa hobetuko dute

Herrik herri - DURANGO

> **GARBIKETA.** Ekainean, hondakinak batzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzu berriaren iragarpena egin zuten, 2019an ezartzeko. Organikoa batzeko 100 edukiontzi ipiniko dituzte kaleetan, eta herriarrek giltz elektronikoko bidez zabaldu ahalko dituzte. Bestalde, auzoak astean 5 bider garbituko dira, eta erdiguneko eremua hedatu, astean 7 bider garbitzen dena. Arratsaldez ere garbituko dute.



**EUSKARAZ ETA
BERDINTASUNEAN
BIZI EGUNEZ
EGUN!**

**berrizko
UDALA**

**BERRIZKO
UDALA**

Tel.: 946 824 036
www.berriz.eus

**EUSKARAZ
NAHIAGO**

2016 **ikam**

eskerrik
asko





Erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katea egin dute

Herrik herri - DURANGALDEA

> **POLITIKA.** Orain lau urte bezala, eta orduan hasitako bideari jarraituta, Gure Esku Dago dinamika giza katea antolatu zuen eskualdean ekainean. Milaka lagunek erabakitzeko eskubidearen aldarria kaleratu zuten elkarri eskutik helduta, jai giroan. "Urte hauetan herritarrak ahalduz eta konplizitateak sortzen joan gara", adierazi zuen Angel Oiartzabek, Gure Esku Dago ekimeneko bozeramaileak.

Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotzea zen antolatzaileen helburua, eta eskualdean, Mallabia, Zaldibar, Berriz, Abadiño, Durango, Iurreta eta Zornotzatik pasatu zen katea.

Ekainaren 10ean jai giroa izan zen nagusi eskualdean, eta giza kateak emozioz betetako irudiak utzi zituen. Giza katearen ordua 12:00etan zen, baina mo-

bilizazioa prestatzeko asmoz, ordu bete lehenagotik batzen hasi ziren herritarrek errepide bazterretan, ehunka boluntarioren laguntzagaz. Durangaldeko herritarrek oinez, bizikletan eta autobusez egin zituzten espedizioak, goizean irtenda. Gure Esku Dagoren esanetan, 175.000 lagun batu ziren giza katean.

Legebiltzarrean estatutu berri batearako lanketan dabilta, eta erabakitzeko eskubidea txertatzea eskatu zuten bozeramaileek.

Ekimena egin orduko ANBOTOK egindako elkarrizketan, ekainaren 10eko giza katea aro berri baten lehen dabiliziko mugarria izan daitekeela adierazi zuen Oiartzabek. "Testuinguru berezi batean eragiteko gaitasuna duen mobilizazioa izan daiteke", aitortu zuen.



Mobilizazioak Mikeldiko aparkalekuaren kontra

Herrik herri - DURANGO

> **MOBILIZAZIOA.** Muruetabarriko etxe berrien ondoan 26 autorentzako aparkaleku libre bat eraiki gura zuela jakitera eman zuen Durangoko Udalak. Baina udalaren nahia jakin zutenean, hainbat bizilagun horren aurka mobilizatzen eta sinadurak biltzen hasi ziren.

Inguruko bizilagunek berdegunea babestu gura dute. Bertan dagoenetik, oinezkoen kopurua handitu egin dela eta auzoari mesede egin diola uste dute. Berdegunea Mikelarra izendatu dute.



Euriteek 80.000 euroko kalteak eragin dituzte

Herrik herri - ATXONDO

> **EURITEAK.** Ekainaren 3an erruz egin zuen euria Durangaldean, eta Atxondo izan zen eskualdeko herririk kaltetuena. Hainbat errekek gainezka egin zuten eta igerilekuan, eskolan, baserrietan eta herriguneko hainbat etxetako atarietan sartu zen ura. David Cobos alkateak jakitera eman zuenez, euriteek 80.000 euro inguruko kalteak eragin zituzten Atxondon.

Garaiko Sagardo Egunak 120 lagun batu ditu

Herrik herri - GARAI

> **KULTURA.** 120 bat lagun batu ziren ekainean Trumoitte kultur elkarteak Garain antolatutako Sagardo Egunean. DJ Bullek jarritako musikak lagunduta, jai giroa izan zen nagusi frontoi inguruan.

Azken urteotan, Garaiko lagun talde batek Gipuzkoako sagardogile baten sagar bilketan parte hartu du irailean, hari laguntzeko. Eta, trukean, sagardoa Garaira ekarri izan dute. Beraz, beraiek batutako sagarrek egindako sagardoa dastatzeko aukera izan zuten Garaiko Sagardo Egunera joandako lagunek.



Aste bitan garaipen bi Pagonabarragarentzat

Kultura - DURANGO

> **BERTSOA.** Ekainean garaipen bi lortu zituen Gorka Pagonabarraga gazte durangarrak. Elorrioko Gaztetxean jokaturako Durangaldeko V. Kopla Txapelketan txapalata jantzi zuen eta Euskal Herriko eskolarteko txapelketan, txapela.



Mallabian Juan Carlos Perez omendu dute

Kirola - MALLABIA

> **ARETO-FUTBOLA.** Juan Carlos Perezi omenaldia egin zioten Mallabiko Azokaren barruan, urteetan areto-futbol taldeagaz egindako lanarengatik. Perezek taldeko ardura uztea erabaki zuen eta herritarrek omenaldi hunkigarri batez eskertu zioten urteetan egindako lana.



Bidegurutzeari irtenbide bila, Muntzaratzen

Herririk herri - ABADIÑO

> **TRAFIKOA.** Urte hasieratik mobilizazioak egiten dabilta Abadiñon, Muntzaratzen "semaforoek sortzen duten arriskua" salatzeke. Apirileko osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten, horren ostean hainbat elkarretaratze egin zituzten eta, ekainean, 704 sinadura bidali zituzten Aldundira. Horren ostean ere mobilizazioak egiten jarraitu dute herritarrek.



"Satisfazio handia ematen duen lana da"

Erreportajea - DURANGALDEA

> **SUHILTZAILEAK.** Muturreko egoerak bizitzera ohituta daude Iker Mendizabal eta Roberto Mendibil suhiltzaileak. Su-teak, erreskateak, istripuak zein uriolak izan, laguntzeko prest izaten dira beti. Gainera, eurena "satisfazio handia" ematen duen lana dela azpimarratu zuten suhiltzaile biek. Mendizabal hasiberria da eta Mendibilek, berriz, eskarmentu handia du ofizio honetan.

700 lagunentzako aquaparka lurretan

Herririk herri - IURRETA

> **ASIALDIA.** 4.300 metro koadro eta 700 lagunentzako edukiera duen aquaparka zabaldu zuten Iurretan, udako denboraldirako. Besteak beste, olatu estatiko bat eta 14 metroko txirrista bi zituen. Herriarentzat proiektu "interesgarria" eta "Durangaldeko aisialdirako beste alternatiba bat" izan zitekeela pentsatuta erabaki zuen aurrera egitea udalak.



Txotxe zunda 35.000 metrora heldu da

Herririk herri - DURANGO

> **FISIKA.** Kurutziaga Ikastolako Beñat Igarzak, Xabier Goirik, Paul Alberdik, Jone Azkaratek, Ander Rubiok eta Aritz Corpionek egindako Txotxe zunda meteorologikoa 35.000 metrora heldu zen. "Egoera meteorologikoa ona zen, baina bagenuen kezka aireraterakoan ez ote zen kateatuko zuhaitzen bat jota. Justu-justu libratu zuen harmailetako zuhaitza", azaldu zuten Kurutziagako ikasleek.

OTXANDIOKO UDALA

Tel.: 945 450 020
www.otxandio.eus

Askatasuna eta elkartasuna,
urte osorako, mundu osorako



OTXANDIOKO
UDALA





Errugbiaren elitean leku bat egin du Uribarri Barrutietak

Kirola - DURANGO

> ERRUGBIA. Espainiako selekzioagaz errugbi 7ko munduko txapelketan parte hartu du, aurten, Uribarri Barrutietak. Urteetako lanaren uzta jasotzen ari da, eta, apurka-apurka, errugbiaren elitean bere tokia egiten ari da 21 urte baino ez

dituen gazte durangarrak. "Errugbian maila honetara heltzeko, gauza asko sakrifikatu behar izan ditut", azaldu zuen.

San Frantsiskon (AEB) jokatu zen txapelketaren lehenengo partiduen atarian egon zen ANBOTogaz, jokatzeko

ko zuen minutu bakoitza aprobetxatzeko prest. Bere berbetan, "munduko onenekin leihatzen zarenean errealitatea zein den eta benetan non zauden konturatzen zara". Errugbitik bizi den arren, ez du kontraturik. "Neskok ez daukagu kontraturik, bekak ditugu. Diru-laguntzei esker bizi gara", esan zuen. "Guk gizonak baino gauza gehiago irentsi behar ditugu eta askoz gehiago kostatzen da gure lana bistaratzea", gaineratu zuen.



40 ume saharar Tindufeko kanpamentutik Durangaldera

Herririk herri - DURANGALDEA

> SAHARARRAK. Tindufeko (Aljeria) erre-fuxiatu sahararren kanpamentuetatik irteten eta uda Durangaldean pasatzera etorri ziren 40 ume, Oporrak Bakean programagaz. Familietan eta kanpamentuetan hartu zuten babes, desertuko beroa saihestu, aisialdi ekintzekin gozatu eta osasun azterketak egiteko. Aniztasun funtzionala zuten 11 ume Izurtzako Rio de Oro elkartearen kanpamentuan egon ziren, 15 Atxondon Hamadako Izarrakegaz, eta 8 zenbait herri-tarrek. Elorriora sei etorri ziren, Lajwad elkartearen bitartez.

25 urte Otxandio eta inguruak zaintzen

Herririk herri - OTXANDIO

> BOLUNTARIOTZA. Aurten 25 urte bete ditu Herri Babeserako Boluntarioen Elkartek. 25 urte Otxandio eta inguruak zaintzen. Gaur egun, 12 boluntario dabilta eta larrialdi zerbitzuko deia jasotzean jartzen dira martxan. Suteetan suhiltzaileei aurrelana egiten diete eta sute txikiak itzaltzea ere egokitu zaie sarritan. Neguko elurteetan bideak garbitzen laguntzen dute eta mendiko erreskateren batean ere parte hartu izan dute. Euren lana ez da ohar-kabekoa: jaietako txupinazoa bota zuten orain 4 urte.



Pauso bat elikadura burujabetzaren alde

Herririk herri - ATXONDO

> ELIKADURA. Bertako nekazaritzari eta abeltzaintzari bultzada emateko, Atxondoko eta Elorrioko hamabi bat lagunek Anbotope Agroasanblada sortu zuten. 2017an ekin zioten proiektuari, eta uda honetan erronka berri bati heldu diote: Atxondoko igerilekuko tabernan euren produktuekin eman dute jaten. "Gizarteari bertan hazi eta ekoiztutako produktuak eskaintzea izan zen helburu nagusia, elikadura burujabetzaren alde pauso bat emanez", azaldu zuten produktore eta kontsumitzaileen kolektibokoek.

Idi eta asto probak diruz laguntzen jarraituko dute

✚ **Herririk herri** - MALLABIA

> **GALDEKETA.** Herritar bik sinadurak batu zituzten udalak idi eta asto probetarako diru-laguntzak kendu zitzaizkien eskatzeko, baita tankera horretako probek udal azpiegiturarik erabili ez zezaten ere. 271 sinadura batu zituzten, eta, horren aurrean, udalak herri galdeketa loteslea egin zuen uztailean. 204 mallabitarrek parte hartu zuten galdeketa, eta horietatik 119k diru-laguntzak mantentzearen alde eta azpiegiturak erabiltzearen alde bozkatu zuten. 81 lagunek horren kontra bozkatu zuten, eta lau boto zuriak izan ziren. Horrela, abuztuko jailetako idi probetarako 12.000 euro eman zituen udalak.



Hiru irakasle maputxe euskara ikasten etorri dira

✚ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **EUSKARA.** Paula Huenumilla, Catalina Huenulef eta Alvaro Mariano maputxeak euskara ikasten egon ziren Zornotzako Barnetegian. Mapuzugulezuain elkarteko kideak dira, eta, Garabidegaz elkarlanean, maputxeen hizkuntza hainbat arlotan indartzeko estrategiak martxan jartzen ari dira. Mapuzugun hizkuntza irakasten duten arren, ikasle paperean jarri dira oraingoan.



Herriko ume denek dute tokia Abadiño klubean

✚ **Kirola** - ABADIÑO

> **FUTBOLA.** Udalak, Abadiño futbol klubak eta Traña-Matienako eskolako Guraso Elkartek hitzarmena adostu zuten eta herriko ume denek izango dute tokia futbol klubean. Horrela, urteetako polemikari behin-behineko irtenbidea eman gura izan diote. Guraso Elkarteko kide Primi Arroyorentzat "prozesu nekagarria" izan da. "Umeek Abadiñon ibili gura dute. Kluba eta Astola Athletic balira lez ikusten dituzte".



"Teknologia aditiboa guztiz iraultzailea da"

✚ **Erreportajea** - DURANGO

> **TEKNOLOGIA.** 3Dko inprimagailu bat bailitza, haren bidez metalezko piezak sortzen dituen makina sortu dute Durangoko Addilan enpresan, eta munduan bakarra den makinagatik aitortza jaso dute. Addilanezko zuzendari Amagoia Paskual durangarraren berbetan, "proiektu oso motibagarria da, teknologia aditiboa guztiz iraultzailea delako". Teknologiaz akordioa dute teknologia garatzeko.









Elorrio urtes osoko Turismoa

Herriko Plaza, 48230 Elorrio (Bizkaia) · Tel.: 94 658 712

www.elorrioturismo.eus





"Kale bihurtu" gura dute Iurretako N-634 errepidea

Herririk herri - IURRETA

AZPIEGITURAK. Bizkaiko Foru Aldundiak 2019an hasiko ditu Iurretako N-634 errepide nagusiko eraldaketa lanak. Errepide nagusia "kale bihurtu" gura dute lan hauekin eta, guztira, 1,6 milioi

euroko inbertsioa iragarri dute. Lanak urte hasieran hastea aurreikusi dute, eta handik 7-8 hilabetera amaituko dituztela. Lanek 700 metroko errepide zatian izango dute eragina. Biribilgune bi eta

bost zebrabide jarriko dituzte, eta orduko 50 kilometroko abiadura hartu ahal izango dute ibilgailuek gehienez. Bidegorria eta semaforoak ere ipiniko dituzte, oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Iurretako Udalak aurrekontu osoaren erdia baino gehiago hartuko du bere gain: 922.505 euroko inbertsioa egingo du. Bizkaiko Aldundiak jarriko ditu gainontzeko 634.460 euroak.

Uztailan sinatu zuten lankidetzat hartzena Iurretako Udalak eta Aldundiak. Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, "obra hau premiazkoa da herriaren etorkizunerako. Lubaki bat kendu, eta herria egituratuko duen bidea sortuko dugu". Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatua ere izan zen Iurretan proiektuaren inguruko azalpenak emateko. "Errepidea izan dena kale bihurtuko dugu", esan zuen. Ibilgailu askok doakoa den A-8ko Iurretako-Gerediako errepidea erabiltzea dute helburu berantolaketan lan hauek.

N-634 errepide nagusiak herria erdibitzen du. Plazako eremuan, etxebizitza blokeez, elizaz eta udaletxeaz gainera, eskolak eta pilotalekua ere badaude, egunero koan jende askoren joan-etorria eskatzen dutenak. Eredu biak batuago geratzea da egitasmoaren helburua, errepidea zeharbide bihurtuta.



Morgan taldeagaz egon da Ekain Elorza, Elorrion

Kultura - BERRIZ

MUSIKA. Hamahiru urteagaz hasi zen bateria jotzen Ekain Elorza berriztarra. Ibilbide profesionala egiteko asmoz, Madrilera joan zen, eta ordutik hamasei urte igaro ditu bateria astintzen. Morgan proiektu arrakastatsua etorri zen Elorrion uztailean, kaleratutako Air diskoa aurkezte- ra. 2015ean *North* diskoa kaleratu zutenetik geratu barik dabil boskotea. Musikagintzan egindako ibilbide profesionalaz berba egiteko aukera izan zuen ANBOTOK Elorzagaz. "Hamasei urteotan lan asko egin dut, eta ikusi dut gura nuen horretara hurbiltzen ari naizela pixkanaka", azaldu zuenez.

Cañete eta Luengo arku-tiroaren gailurrean

Kirola - DURANGALDEA

ARKU-TIROA. Arku-tiroan belaunaldi biren isla dira Lidia Cañete eta Elisabeth Luengo durangarrak. Zaldibar Arku Taldeko Cañetek Euskadiko arku-tiro txapelketa irabazi zuen uztailean Getxon. Durangoko Arkulariak taldeko Luengok, berriz, hirugarren sailkatu eta podiumera igotzea lortu zuen aire zabaleko txapelketan.



Bonbardaketaren egileen aurkako kereilari eutsiz

Herririk herri - DURANGO

KEREILA. Durangoko bombardaketaren egileen aurkako kereila artxibatu zuen Bizkaiko Auzitegiak uztailean, eta Durangoko Udalak Auzitegi Konstituzionalean errekurrituko zuela iragarri zuen. 2017ko uztailean 18an aurkeztu zuten kereila Durangoko epaitegian, eta epaileak artxibatzea erabaki zuen. 336 hildako eragindako erasoan parte hartutako Italiako Aviazione Legionariako militarren kontrako kereila da.



Romerok aurkaririk barik jarraitzen du

Kirola - DURANGO

> **ATLETISMOA.** Durangaldea Running taldeko Jose Luis Romerok urrezko hiru domina eskuratu ditu Espainiako atletismo txapelketan. Domina bana lortu zuen 400 metroko lasterketan, 200 metrokoan eta 100 metrokoan. 62 urte daramatza atletismoan eta oraindik ez du erretiratzeko asmorik. "Guk esaten dugun lez, irteera lerroan egoteak ondo eta osasuntsu jarraitzen dugula esan gura du", adierazi zuen.



Frankismoaren biktimak omendu dituzte

Herririk herri - GARAI

> **MEMORIA.** Frankismoaren biktimak omendu zituzten Garain, lehen aldiz. Uztailearen 25ean, eta jaiak aprobetxatuta, horien omenezko oroigarria inauguratu zuten udaletxe aurrean, zenbait senide han zirela. Gerediaga elkarteak azterketa egin ostean, frankismoaren eraginez herritar bi hil zirela jakin dute: Miguel Zabala Mazaga 23 urteko gudaria bata eta Maria Narbaiza Ogiza 16 urteko gaztea bestea. Gerediagako Jon Irazabalek azaldu zuenez, Durangoko bonbardaketan hil ziren.

Errepidearen gainetik pasabidea egingo dute

Herririk herri - MALLABIA

> **ERREPIDEA.** Trabakuan BI-633 errepidea zeharkatzeko, bide gainetik pasabide bat egingo du Mallabiko Udalak, Goita, Gereaa eta Longako 35 bat auzotarrek horrela erabaki ostean. Batzar irekia egin zuten auzotarrek uztailean, eta gehiengo zabal bat agertu zen aukera horren alde. 2019ko urte hasieran hasi gura ditu lanak udalak, eta, horretarako, udala hasita dago proiektua egiten eta baimenak lortzen.



Lekuan lekuko egutegia

Ohiko saltokietan salgai

anboto 
komunikabideak



2€



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



Gibela transplantatu ostean, "beste mundu bat hasi da"

Herririk herri - MALLABIA

> MEDIKUNTZA. Uztailean Bartzelonako Vall d'Hebron ospitalean gibelean transplantatu egin zioten Naroa Aranbururi. Ebakuntza ondo irten zen eta errehabilitazio prozesua amaitu arte Bartzelonan egon ziren 13 urteko mallabitar gaztea eta bere familia.

"Naroa oso ondo eta oso animatuta dago". Halaxe azaldu zuen ANBOTOn Josefi Antxiak, Naroaren amak. Bizitza erabat aldatu zaio Naroari. Batetik, gi-

belean garatzen ari zitzaion minbizitik libratu da. Bestetik, jaio zenetik organo horretan duen gaixotasuna osatze bidean dago. "Beste mundu bat hasiko da Naroarentzat. Askatasun askoz ere handiagoa izango du", zioen Antxiak. Elikaduran asko igarriko du eta tratamendua "askoz eramangarriagoa" izango da. Organo-ematearen garrantzia nabarmendu zuen familiak. "Prozesu guztiaren oinarrian dago", esan zuten.



Udalaren izenean jarri gura dute Argiñetako baseliza

Herririk herri - ELORRIO

> ONDAREA. Argiñetako Kofradiak baseliza Elorrioko Udalaren izenean jartzea proposatu du. Kofradiako kideek prentsa ohar bidez jakitera eman zutenenez, udalak baseliza zaharberritu, mantendu eta inguruari garrantzia ematea da helburua, "baseliza-aren eta inguruko lur eremuaren erabilera kofradiari usufuktuan ziurtatuz, kultu erlijiosoaren praktika babestuz eta, gainera, inguru guztia babesteko plana ezarritik". Bestalde, kofradiak kaleratutako idatzian jakitera eman zuenez, dagoeneko baseliza-ko teilatua konponduta dago, udalak emandako 50.000 euroko laguntza bati esker.

Eztiola baten proiektua sortu gura du Erletek

Erreportajea - ATXONDO

> ERLEZAINZTA. Durangaldeko 15 erlezain txiki Erlete elkartearen batu ziren eztiola baten proiektua martxan jartzeko asmoz. Erlezainek bertan atera eta ontziratu ahalko dute euren eztiak, gero

herritarrei saltzeko. Hartara, "Durangaldean bertako eztiak kontsumitzeko aukera bermatu" gura dute. Proiektua abiatzeko, instituzioen laguntza gura dute. "Hemen go erlezainak oso txikiak gara eta ez gara gai inbertsio denei aurre egiteko". Atxondoko Udalak lokala utzi die proiekturako.

Erleak gure inguruan duen garrantzia ere gizarteratu gura du Erletek. Erleak zaintzea, eztiak ekoiztea eta gaia sozializatzea dute helburu, nabarmendu zuten.



ikastolenelkartea

Derrigorrezko Hezkuntza eskaintza · Batxilergoa · Lanbide heziketa

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH · Batxilergoa

Haur Hezkuntzako Goi Teknikari titulua · Gaitasun profesionalak: arreta soziosanitarioa, ur sorosle...

ibaizabal

IKASTOLA

www.ibaizabalikastola.eus

KURUTZIAGA

IKASTOLA

www.kurutziagaikastola.eus



Zornotzako zentroko egoera salatu dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **GIZARTEA.** Zornotzako adin txikikoen zentroan ikasgelak eta jantokiaren zati bat logela moduan egokitu dituztela salatu zuen Ahal Duguk Bizkaiko Fiskalaren bulegoaren erregistro orokorrean uztai-lean aurkeztutako idatzian. Gaineratu zuten, Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapean dagoen zentroan haur batzuk lurrean lo egiten ari ziren. Horren aurrean, egoerari "berehalako" irtenbidea emateko exijitu zion Ahal Duguk Foru Aldundiari, eta "haurrei harrera ona eta duina bermatzeko".

Eneritz de Madariaga Ahal Dugu alderdiko batzarkidea eta Tinixara Guanche legebiltzarkidea izan ziren idatzia erregistratu zutenak. "Haurren eta nerabeen babeserako legearen urraketa larriak gertatzen ari dira zentro horretan" salatu zuten, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren "pasibotasun onartezina" kritikatu. "Zornotzako zentroa 160 haur hartzen ari da, baina 40 hartzeko lekua du", esan zuten.



DRTn etapa berria hasi du Iñaki Perezek

Kirola - DURANGO

> **ERRUGBIA.** Iñaki Perez Ortizk Oskar Astarloaren eta Kemen Goitiandiaren tokia hartu du Durango Rugby Taldeko lehen taldeko entrenatzaile karguan. Bigarren etapa bat hasi du Perezek. "Hamur urte eder eman nituen hemen, etxeko talde moduan sentitzen dut DRT, eta hori faktore garrantzitsua izan da erabakia hartzerako orduan", nabarmendu zuen algortarrak.

Itsua 'Supreme Salad' diskoa kaleratu du

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** Itsua ekoizle eta beatmaker durangarrak zazpi abestiz osaturiko *Supreme Salad* diskoa kaleratu zuen udan. Ohi bezala, musika doinu beltzak dira laneko protagonistak. Jazza, hip hopa, breakbeat-a eta musika tropikala uztartzen ditu hirugarren lan honetan. Diskoaren azalaz Estrella Electronica (Olatz Arrese) arduratu da.



"Sorosle lana topikoz betetako lanbidea da"

Akuilua - DURANGO

> **SOROSLEA.** Ane Baraiazarra sorosle eta kirola egiteko monitore ibili zen udan Abadiñoko igerilekuetan. Oraindik ere sorosle lana topikoz betetako lanbidea dela dio, eta nekez betetzen dela sorosleen esana. Edozer gauza gertatuta, soroslea erreferentia izan behar dela uste du goi mailako ikasketak dituen durangarrak. Sorosle lanetarako, gurago du igerilekua hondartza baino; "baina asialdiarako, hondartza", esan zuen.





ATXONDOKO UDALA

HIRURAK BAT

ATXONDOKO UDALA · Tel.: 946 821 009 · www.atxondo.eus





Migratzaileen babesleku da Berrizko Olakueta aterpetxea

Herririk herri - BERRIZ

> **MIGRAZIOAK.** Bizi hobe baten bila edo gatazketatik ihesi datozen migratzaile ugarik geltoki asko izaten dituzte euren bidaian. Batzuek hemen geratzea erabakitzen dute, baina beste askok Europan gora jarraitzeko asmoa edukitzen dute. Ondorioz, Euskal Herrian soilik egun batzuetarako egoten diren migratzaileen kasua azaleratu da azkenaldian. Eusko Jaurlaritzak hiru egunerako aterpea ematen die hiriburuetan eta Irunen, baina, kasu berezietarako, egonaldi luzeagoko beste zentro bat zabaltzea erabaki du, Berrizen. Umeeekin dauden emakumeek, bakarrik dauden emakumeek eta gaixorik daudenek edukiko dute bertan egoteko eskubidea, hamabost egunez.

Irailean eman zuen albistea Jaurlaritzak. Berrizko Olakueta aterpetxea au-

keratu zuten, etorkinei erosotasuna eta lasaitasuna bermatzeko proposa iruditzen zitzaielako. Irailean bertan zabaldu zuten migratzaile horientzako babesleku berria, eta dagoeneko hainbat pertsona igaro dira bertatik.

25 lagunentzako lekua dago zentroan. Hasieran hamabost egunez egon ahal dira, eta hogeira arte luzatu daiteke, kasuaren arabera.

Oinarritzko beharrak

Gizarte-bazterketarako arriskuan dauden etorkinen oinarritzko beharrezane (ostatua, elikadura, arropa, oreka emozionala...) erantzutea da egitasmoaren helburua.

EDE fundazioak gestionatzen du zentroa.



Ttap aldizkari digitala jaio da Euskal Herrian

Herririk herri - DURANGALDEA

> **KOMUNIKAZIOA.** Euskarazko komunikazioak jauzia eman du 2018an. Izan ere, Ttap aldizkari digitala jaio da, mugikorretarako eta tabletetarako diseinaturia. Informazioa ikusi, entzun, irakurri eta ukitu egin daiteke aplikazio horri esker. Tokiko hedabideak batzen dituen Tokikom elkarteak, ANBOTOk, Goienak, Baleiek eta Kataluniako Esguard aldizkariak sustatu dute proiektua. Eneko Atxaren Eneko Bilbao jatetxean aurkeztu zen irailean.



Akordeoi soinua zabaldu zuen Durangoko itsua

Kultura - DURANGO

> **MUSIKA.** 20 urte bete dira, aurtan, Eusebio Bilbao akordeoilaria hil zenetik. Bazuen berezitasun bat: itsua zen, 6 urtetatik. Akordeoi irakasle izan zen, eta instrumentu horren eta euskal kulturaren zabalpena landu zuen. Nuria Bilbao bilobak aitariaren akordeoia jotzen du oraindik, Herri Maite taldean.

Berrizko kereila, Argentinara bidean

Herririk herri - BERRIZ

> **MEMORIA.** Frankismoaren krimenak epaitu ahal izateko euskal kereilara batu zen Berrizko Udala 2016an, eta aurtan kereila hori osatu eta Argentinara bidali du. Izan ere, Maria Servini epaile argentinarra dabil auzia ikertzen. 1977ko Amnistia Legeak aurretiazko krimenak epaitzea galarazten du, eta, horregatik, atzerrian dabilta ahalegina egiten. Berriz 1936 elkarteak eta Josu Ibargutxik eginiko ikerketa lana dago kereilaren oinarrian. Horren arabera, frankismoak 80 biktime eragin zituen Berrizen; tartean, 1937an alkate zen Felipe Urtiaga ere bai.



Gisasolatarren sagak ez du etenik Mallabian

Kirola - MALLABIA

> **HARRI-JASOTZEA.** Jose Antonio Gisasola Zelai harri-jasotzaileak urte batzuk daramatza erretiratuta, baina Karmelek eta Jonek, bere alabak eta semeak, hartu diote erreleboa. Aita izaten dute botilero.



Fosecoren itxieran, 24 behargin kalera

Herririk herri - IZURTZA

> EKONOMIA. Izurtzako Foseco enpresak ateak zarratu ditu aurten. Langileek hainbat protesta egin zituzten, tartean greba bi ere bai, abuztuan eta irailean. Azken horretan hamar egun eman zituzten greban, eta, azkenean, akordiora heldu ziren euren enpresagaz. 24 behargin kalera joan ziren inzentibatutako bajagaz, 16 Igorreko plantan birkokatu zituzten, eta beste bik jubilazioa hartu zuten.

Foseco Vesuvius taldearen barruan dago, eta berregituratze baten argudioa eman zuen ixteko. Langileek gogoratu zuten enpresak irabaziak ematen zituela.



"Maila gorenean utziko dut atletismoa"

Kirola - ZORNOTZA

> ATLETISMOA. Erretiroa hartzea une konplikatua izaten da kirolari batentzat. Denen ametsa aho zapore onagaz uztea den arren, beti ez da horrela izaten. Zorionez, ez da Iraia Garciaren kasua. "Betigura izan dudan moduan uzteko aukera eskaintzen dit bizitzen nabilenak. Maila gorenean utziko dut Atletismoa". Malagan jokaturako munduko txapelketan zilarrezko domina jantzi zuen irailean.

Herritarren Arretarako Zerbitzua zabalik irailetik

Herririk herri - ZORNOTZA

> HAZ. Irailaren 3an zabaldu zuten Herritarren Arretarako Zerbitzu (HAZ) berria Zornotzako udaletxean, sarreraren ondoan. Ordutik aurrera, departamentu batetik bestera ibili beharrean, udaleko tramite denak hantxe egiteko aukera eskaini zuten. HAZ-a martxan jartzeak udaleko departamentu denen arteko "koordinazioa eta kolaborazioa" eskatu dituela azaldu zuten udal arduradunek.



ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA
Tel.: 946 827 016
www.zaldibar.eus

Zaldibar
Elizateko Udala



Kurdistango emakumeen iraultzan barrena


Erreportajea - DURANGO

> **FEMINISMOA.** Durangotik joandako delegazio feminista bat Mendebaldeko Kurdistanen egon zen, Rojavako Kobane hirian. Hango emakumeek bizi duten errealitatea eta sortu dituzten egiturak ezagutzeko aukera izan zuten. Kurdistana

nen aldeko Suargi elkarteak eta Durango-ko Udalak adostutako hitzarmenaren barruan egin zuten bidaia. Esther Martin, Elena Gabriele, Alaitz Berriozabalgaitia, Eider Uribe, Jon Bingen Landabidea, Martin Arrasate eta Maria Villar izan

ziren partaide, eta lehen bostek esperientziaren berri eman zioten ANBOTOri.

Estatu Islamikoaren aurka lurraldea askatzeko borrokan, emakumeek paper aktiboa eduki zuten. Orain, konfederalismo demokratikoa sortzen dabilta. Espazioak eurenganatu dituzte militantzian eta instituzioetan. "Kobaneko emakumeak etxean egotetik, ikusezin izatetik, kalean egotera pasatu dira", adierazi zuten durangarrek.



Juanito Agirre Durangoko zinegotzi ohia hil da

Herririk herri - DURANGO

> **AGURRA.** Irailaren 20an Juanito Agirre zinegotzi ohia hil zen, autoagaz bere garaje-ean edukitako istripu baten ondorioz. EAko zinegotzi izan zen hainbat urtez, eta Bilduko zerrendan ere parte hartu zuen gero. Horrez gain, margolaria eta Kriskitineko dantzaria ere izan zen. Beragaz lan egindako politikariek penaz hartu zuten notizia. "Barru oso onekoa zen, beti laguntzeko prest", gogoratu zuen Dani Maeztuk (EH Bildu). Ander Gorrotxategik (EAJ) esan zuen hurbileko pertsona zela. "Bere ideiei eutsiz, oso leiala izan zen".

Azkorbebeitiaren 50 urteko lanari, aitortza

Herririk herri - ABADIÑO

> **OMENALDIA.** Irailaren 15ean Euskal Herriko 52. Artzain Txakur Txapelketa jokatu zen Axpen, eta han Jose Antonio Azkorbebeitia abadiñarrak oroigarri bat jaso zuen urte askoan txapelketa horren antolakuntzan egindako lanagatik. "Urte hauetan guztietan ondo egindako lanari egindako errekonozimendua da sari hau, eta oso eskertuta nago", azaldu du Azkorbebeitiak.

"Oporrak hartzeko unea" heldu dela eta, datorren urtean ikusle izango dela adierazi zuen, antolatzaile barik.



Sinadurak batzen, ibilgailuen abiaduragatik

Herririk herri - IZURTZA

> **PROTESTA.** Trafikoak herrian eragiten dituen arazoei aurre egiteko, plataforma batean batu dira hainbat herritar. Ibilgailuek daramaten gehiegizko abiadura da kezkatzen dituen arazoetako bat. Plataformakoek aurrez aurre batzartu gura dute Aldundiko ordezkariekin arazoaren berri lehenengo pertsonan emateko. Bide hori urratzeko, sinadurak batzen hasi dira. Egunero 7.780 ibilgailu igarotzen dira Izurtzako herrigunetik, eta, ikerketa baten arabera, %50ek baino gehiagok gainditzen dute araututako abiadura.



Frankismoaren kaltea ikertzeko beka Elorrión

Herririk herri - ELORRIO

> **MEMORIA.** Faxistek gerra zibilean eta diktaduraren hasieran herrian egindako kaltea ikertzeko asmoz, beka deialdia zabaldu zuten Laumunarrieta 1937 elkarteak eta Elorrioko Udalak. Mikel Diego historialari bilbotarrak jaso zuen ikerketa hori egiteko ardura. Lehen datu batzuk eman zituen Diegok: 75 hildako, 40 preso eta 10 esklabu elorriar egon ziren, gutxienez.

Lau domina Isasi eta Zuazubiskarrentzat

Kirola - DURANGALDEA

> **TXIRRINDULARITZA.** Belodromoa Ziortza Isasiren eta Illart Zuazubiskarren bigarren etxea bihurtu da. Gustura sentitzen dira pistan, eta, urtea joan eta urtea etorri, dominak pilatzen ari dira hainbat txapelketatan. Irailean, bina dominagaz itzuli ziren Valentzian jokaturako Espainiako Txapelketatik. Durangaldeko txirrindulari biak iraupen probetan nabarmendu ziren.



Gazteen enplegua sustatzeko ekimena

Herririk herri - DURANGALDEA

> **EKONOMIA.** Aldundiak eta eskualdeko udalek sustatzen duten Gaztedi Durangaldea planaren barruan, enpresak sortzeko ideia lehiaketa egin dute. Gainera, enpresetan esperientzia hartzeko bekak ere eskaini dizkiete 18 eta 29 urte arteko gazteei. Guztira, 107.000 euroko aurrekontua izan du planak; 64.000 Aldundiak ipini ditu, eta, gainerakoa, udalek. Bekei dagokienez, bost hilabeteko lan esperientzia sartu da programan, %75eko lanaldian eta 460 euro kobratuta. Ikasi duten arloan esperientziarik ez duten gazteek izan dute parte hartzeko aukera.



Tokikoa kudeatzen dugu, globalean pentsatzen dugu

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak planeta babesteko eta pertsonen ongizatea bermatzeko lan egiten du, **Garapen Iraunkorreko Helburuen** mandatu orokorrari jarraiki, bereziki, seigarrenari: guztiontzako ur garbia eta saneamendua.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consortiodeaguas.eus





Durangok Planto ekimena sortu dute 11 elkartek

✚ **Herririk herri** - DURANGO

> **GIZARTEA.** Durangok Planto mugimendua jaio zen, 11 auzo elkarte eta plataformaren eskutik. Azken urteetan era askotako plataformen loraldi bat egon da Durangon, eta mugimenduan batu zirenek zioten esperientzia batek elkartu zituela: udalagaz eduki duten hartu-emanak sortutako "nekeak". Udalari "benetako parte-hartzea" eskatu diote, herriko "erabaki garrantzitsuetan" berba eduki gura

dutelako. Herritarrek aktibatuta, gobernu ereduan eragitea da euren helburua.

Erabaki, AP8-Peajerik Ez, Mikelarra plataforma, Durangoko Familiak, Aire kalitatearen inguruko plataforma, Berandu baino lehen Gorka etxera taldea, 24 orduko Pediatria, Herria auzo elkarte, Pentsio duinen aldeko taldea, Zaratarik Ez eta Zabalduko Ditu gura elkartu ziren plataformak.



Sokamuturraren aurka manifestazioan irten dira

✚ **Erreportajea** - DURANGO

> **JAIK.** Jende askok parte hartzen du sanfaustoetan egiten den sokamuturra edo *Zezenak dira* ekimenean, baina aurkako batzuk protesta egitera irten dira aurtien kalera. 70 bat lagun batu ziren bakarrik, baina jaietako nobedadeetako bat izan zen protesta hurrengo urteetan sendotzen joatea gura dute antolatzaileek. Ez hori bakarrik; sokamuturra egiten jarraitu ala ez erabakitzeko, kontsulta bat egitea eskatuko diote Durangoko Udalari. Herritar batzuek deitu zuten manifestazioa, eta dagoeneko elkarte bat sortu dute aurrera begira: Durangaldea Antiespezista.



Ez dute erasotzailerik gura Durangon

✚ **Herririk herri** - DURANGO

> **FEMINISMOA.** San Fausto jaien atarian, eraso sexisten aurkako Herri Akordioa berretsi zuten elkarte sozial, kultural eta kirolzaileak, alderdi politikoak eta norbanakoak. Argazki jendetsua atera zuten udaletxe aurrean. Erasotzailerik bako jaiak aldarrikatzeaz gainera, herriko kaleetan erasotzailerik ez dutela gura ohartarazi zuten.

Zalaa Fuertes, 'Black is Beltza' pelikulan

✚ **Kultura** - ABADIÑO

> **ZINEA.** Zalaa Fuertes argazkilari abadiñarra lehen pausoak ematen ari da zineman Fermin Muguruza artistaren eskutik. Donostiako Zinemaldian estreinatu ostean, Muguruzaren *Black is Beltza* zinema-areto komertzialetan egiten ari da ibilbidea. Making of-a lantzeaz gainera, Esperanzita aktore mexikarraren ahots gida grabatu zuen filmerako Fuertesek.



Frades 24. sailkatu da munduko txapelketan

Kirola - IURRETA

> TRIATLOIA. Hawaiiiko Kona hirian jo-
katu zen Munduko Ironman Txapelketa,
eta parte-hartzaileen artean egon zen
Gurutze Frades iurretarra. Igerian, bi-
zikletan eta korrika egin beharreko 226
kilometroak 09.26.18ko denboran osatu
zituen. Bere marka 20 minututan ontzea
lortu bazuen ere, Frades ez zen oso gustu-
ra geratu egindako lasterketagaz. “Nahiz
eta iazko denbora hobetu, ez dut egin es-
pero nuen lasterketa”, aitortu zuen.



Eibarren Kirol Hiria Areition eraikiko dute

Kirola - MALLABIA

> FUTBOLA. Eibar futbol taldeak Arei-
tion egingo du Kirol Hiria, eta lau fut-
bol zelai izango ditu. Akziodunen ba-
tzarrean erabaki zuten plana, urrian.
Jatetxea zegoen eraikina berriztu, eta
lehenengo taldearen beharrianetarako
egokituko dute. Ondoan, aparkaleku bat
egingo dute. Proiektuak 16 milioi euroko
inbertsioa eskatuko dio Eibar klubari.
Bestalde, Mallabiko Udalean balorazio
positiboa egin dute proiektuaz, bai
EAJk eta baita EH Bilduk ere.

'Plateru' ikuskizuna, urtemuga jairako

Kultura - DURANGO

> URTEMUGA. Plateruenak kultur guneak
14 urte bete ditu eta modu berezian egin
zuten ospakizuna urrian. Hainbat sor-
tzaileren artean Plateru izeneko ikuski-
zuna aurkeztu zuten jendaurrean. Dan-
tza, berba eta zuzeneko musika nahastu
zituzten. Dantzari eta bertsolari ziren
Durangoko anaia plateru edo zilarginen
istorioa kontatu zuten ikuskizunean, eta
baita bere arrebarena ere, orain arte ez-
kutuan egon dena.



MAÑARIKO UDALA

| 946 818 998 | www.manaria.org



Durangaldeko hainbat dantza taldetan, haize berriak

Kultura - DURANGALDEA

> **DANTZA.** Pausoz pauso, txiri-txiri, emakumeek euren lekua hartu dute Durangaldeko plazetan. Modu naturalean gertatu da aldaketa, baina ez da berezkoa izan. Hainbat pertsonak egindako lanaren emaitza da plazez islatutako irudia. Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna, Durangoko Platillu Soinua, Elorrioko Errebonbillo Eguna, Danborrada... Iurretako San Migel Eguneko Dantzari Dantza izan da azken adibidea. Guztiak busti ditu berdintasunaren olatuak. Adierazpen horietako protagonista batzuk batuta, erreportaje zabala landu zuen ANBOTOk.

Iurretako San Migel jaietan talde parekidearen estreinaldia bizi izan zuten. Herriko egun handian neskak eta mutilak irten ziren plazara, eta denek batera egin zuten Dantzari Dantza. Gazteen taldeak distira egin zuen eta jendearen harrera beroa jaso zuen.

4.380 hektarea gorri eskualdeko pinudietan

Erreportajea - DURANGALDEA

> **NATURA.** Durangaldean 13.192 hektarea hartzen dituzte pinudiek, eta horietatik 4.380 gaixorik daude, gorriturik. Bizkaian gaixotutako pinurik gehien duen eremua da Durangaldea, Jaurilaritzako eta Bizkaiko Aldundiko datuen arabera. Gaixotasuna aurretik ere zabaldu zen arren, aurten gogor jo du. Bestalde, pinudietan bota gura duten kobre oxidoaren tratamenduak aldeko eta kontrako iritzia eragin du.



Alderdi guztiak batuta, Epifanio Vidal oroitzuz

Herririk herri - DURANGO

> **MEMORIA.** EAJ, EH Bildu, Herriaren Eskubidea, PSE-EE eta PPko kideek parte hartu zuten ETak 1978an hildako Epifanio Vidal oroitzeko ekitaldian. Bere hilketatik 40 urte betetzen ziren egunean, Vidalen emazteak eta semeak egin zuten hasierako lore eskaintza, eta gero, politikariek.




17 testigantza gehiago Argentinako kereilarako

Herririk herri - OTXANDIO

> **MEMORIA.** Aurrera doa gerra zibilean eta frankismoan otxandiarrek jasandako giza eskubideen urraketak auzitegiatarako eramateko asmoa. Biktimen arretarako bulegoa zabaldu zuten udaletxean, testigantzak jasotzeko. Epealdi horretan, 17 herritarren salaketak eta aurretik jasotakoak Argentinako kereilan aurkeztuko dituzte.





GUALBI
ASESORES

www.gualbiasesores.com

- ✓ *Aholkularitza fiskala*
- ✓ *Kontabilitate-aholkularitza*
- ✓ *Merkataritza eta finantza-aholkularitza*
- ✓ *Lan-aholkularitza*
- ✓ *Kontu-auditoretza*
- ✓ *Aholkularitza juridikoa*

***Bezera, enpresako bere kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia***

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



Euskaraldiaren olatuak Durangaldea zipriztindu du

Erreportajea - DURANGALDEA

> **EUSKARA.** Azaroaren 23tik abenduaren 3ra hizkuntza ohiturak aldatzeko martxan jarritako '11 Egun Euskaraz' ariketa soziala Durangaldea osora heldu zen. Ekimenak rol bi proposatu zituen:

belarriprest eta ahobizi. Ia 10.000 lagunek eman zuten izena Durangalde osoan. Parte-hartzaileen %80 ahobizi izan ziren, eta %20 belarriprest. Euskal Herri osoan 196.000 lagunek baino gehiagok eman zu-

ten izena, eta Bizkaian 68.500ek. Durangaldeko herrietan hainbat ekitaldi antolatu zituzten ekimen honen inguruan. Talde, elkarte eta eragile ugari bat egin zuten Euskaraldiagaz.

Konfiantza sortzea izan zen gakoetako bat. "Euskaraldia pasatu ostean, 11 egunez sortu diren hizkuntza ohitura berri horiei eustea da gakoa. Hori dela-eta, oso garrantzitsua da sortutako euskarazko hartu-eman berriak atseginak izatea parte-hartzaileentzat", esan zuten tailerak antolatu zituzten Berbaro euskara elkarte kideek. Horregaz batera, orain arte gaztelaniaz bizitako erlazioetan akordioak adostu beharra zegoen. "Elkarrizketa elebidunak izatea, adibidez, oso gauza 'arraroa' da guretzat, baina ingurukoekin horrelako akordioak adostea da lehenengo pausoa", esan zuten.

Euskaraldiaren harira, bost parte-hartzaile elkarrizketatu zituen ANBOTOK. Ahobizi rola hartu zuen Kurutziaga ikastolan 40 urtez jardun duen Araceli Alberdi irakasle jubilatua. "Iruditzen zait Euskaraldia saiakera polita izan daitekeela. Euskaldunok insistitu egin behar dugu. Izan ere, normalean pausoa atzera eman eta gaztelaniara jotzen dugu besteek hizkuntza horretan egitean. Oso erraz ematen dugu amore, euskararen kalterako beti", azaldu zuen Alberdik.



"Iurretako plaza husten, bizia galtzen joan da"

Herririk herri - IURRETA

> **GIZARTEA.** Iurretako hainbat belaunalditako dozenaka lagun eskutik, Iurreta Plazaratu dinamika jaio zen azaroan. Antzeko kezkak bultzatuta elkartu dira hilabeteetan, eta "herria biziberritzeko beharra" ikusi dute. Egunerokoan, aisialdi, kultura eta ekintza sozialen falta sumatu dute, eta "horrek harremanetan eta herri-giroan eragina duela" uste dute. Plazan batzen dira, bere garaian "herriko bihotza" izan zen gunean, "jolaserako, ekintzarako eta harremanetarako erdigunean". Hala ere, "denbora pasatu ahala plaza husten joan da, bizia galtzen, eta herrian igarri egiten da".

"Mendiko probetan giro euskalduna dago"

Kirola - ABADIÑO

> **LASTERKETAK.** Sekula ez da berandu gustukoa den hori egiteko. Arkaitz Iturriagaetxebarria orain lau urte hasi zen korrika serio. Eneko Zarrabeitiak afizioa berreskuratu zuenetik, oster, urte bi joan dira. "Mendiko probetan oso giro euskalduna, gertukoa eta jatorra egoten da", azaldu dute Iturriagaetxebarriak eta Zarrabeitiak.



17 urte egin ditu ANBOTO astekariak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **HEDABIDEAK.** 2001eko azaroaren 9an argitaratu zen ANBOTO astekariaren 0. alea, orain 17 urte hain justu. Ordutik, Durangaldean euskaraz informatzeko bideari jarraitu dio, barikuro. Argazki hau 0. alekoa da eta proiektuaren azalpena furgoneta honegaz eman genuen kalean. Ez zeuden Whatsapp, Instagram edo Facebook; ahoz-ahoko lanaren sasoia zen. Eta oraindik ere sasoiko gaude.



Kirolgunea egokitze
obrak hasiko dituzte

Herririk herri - MAÑARIA

> **KIROLGUNEA.** Mañariko frontoian kirolgune bat sortzeko lanak laster hasiko dira eta Indenort enpresak egingo ditu. Aurkeztutako bost eskaintzen artean, enpresa honek jaso zuen baloraziorik onena kontratazio mahaian. Eskaintza ekonomikoa 167.000 eurokoa izan zen. Frontoiko lehenengo pisuan, pasilloa zegoen tokian, gela berri bi sortuko dituzte. Gela bakoitzak 53 metro karratu izango ditu. Gainera, frontoiaren kanpoalderantz aterpe bat sortuko dute, alde batetik bestera. Beraz, 2019an Mañariko herriguneko azpiegitura itxuraldatuta egongo da.



Birziklapena igo guran
Amankomunazgoan

Herririk herri - DURANGALDEA

> **BIRZIKLAPENA.** “Aldundiak organiko osoa onartuko balu, birziklapena asko igoko litzateke”. Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentearen berbak dira. Legealdian hainbat pauso eman dituzte hondakinen sailkapena eta birziklapena handitzeko, baina organikoaren kasuan, orain pausoa Aldundiari dagokiola dio. Organikoa osorik sailkatu ahal izatea eskatu du.

Durangaldeko zortzi
jokalarik Genuine ligan

Kirola - DURANGALDEA

> **FUTBOLA.** Genuine Ligan parte hartzen duen Athleticen taldean, aurten Durangaldeko inoizko jokalaririk gehien daude: zortzi guztira. Geu Be elkarteko Mikel Olaso eta Alberto Hermoso dira esperientzia lehenengoz biziko dutenak. Saioa Ortizek, Sergio Vadillok, Javi Nuñezek, Suzette Amilibiak, Aitor Alberdik eta Josu Uriguenek bigarren urtea egingo dute Athletic taldeagaz.



GARAIKO UDALA

Tel.: 946 816 393
www.garaikoudala.org





Indarkeria matxista kasuak ozen salatu dituzte Durangaldean

✚ **Herririk herri** - DURANGALDEA

➤ **INDARKERIA MATXISTA.** Azaroaren 25aren harira, hainbat mobilizazio antolatu zituzten Durangaldean. Egun horretatik kanpo ere, hainbat ekimen antolatu zituzten, urte osoan, indarkeria matxista salatzeko. Nabarmentzekoa da Durangoko Plataforma Feministak eguenetan antolatzen duen kontzentrazioa. Bestalde, indarkeria kasu ugari publiko egin ziren 2018an. Elorrion, Taberna bateko nesken komunean,

kamerak topatu zituztela salatu zuten azaroan. Ekarretaratze jendetsua egin zuten, Elorrioko Mugimendu Feministak deituta. Bestalde, Durangoko 2018ko indarkeria kasuen salaketen inguruko datuak eman zituzten. 40 emakumek salatu zituzten eraso sexistak Durangon. Kasu gehienetan, emakumeak 21-30 adin tartekoak izan ziren, eta gero 41-50 tartekoak. Biktima horietako 10ek adin txikikoak eduki zituzten euren kargu.



Fraile preso durangarra Duesora hurbildu dute

✚ **Herririk herri** - DURANGO

➤ **DISPERTSIOA.** Azaroan Gorka Fraile preso durangarrari bigarren gradua onartu zioten eta Duesoko (Kantabria, Espainia) espetxera gerturatzeko erabakia hartu zuen Espetxe Zuzendaritzak. Abenduaren hasieran lekuz aldatu zuten. Frailek 20 urte daramatza kartzelan, lehenengo graduan. Bada-jozeko kartzelan zegoen hurbilketa onartu aurretik. 2015ean mingaineko minbizia topatu zioten eta ebakuntza egin zioten. Bere osasun egoera dela-eta, etxeratzeko eskatu izan du berak epaitegietan, eta bere ingurukoek ere bai kaleetan. Etxeratek gaixo larrien presoen zerrendan sartu zuen Fraile.

Mendiko lasterketetatik erretiratu da Iturrieta

✚ **Erreportajea** - ZORNOTZA

➤ **KIROLA.** Mendiko lasterketen exigentziatik irtenda, inoiz baino aktiboago dago Zigor Iturrieta. *Chiloe* eta *Txoriene* programetan dabil bere pasio biak uztartzen. "Munduko lanik onena daukat", dio Iturrietak.



IZURTZA
UDALA
Tel.: 946 813 548
www.izurtza.net



Paper fabrikaren isurketak Ibaizabalen

Herririk herri - IURRETA

> **INGURUMENA.** Iurretako paper fabrikak Ibaizabal errekan "legez kanpoko isurketak" egin dituela atera zuen argitara EH Bilduk. Paper fabrikaren eta gasolindegiaeren artean hondakinentzako eremu bat sortu zuen enpresak 80ko hamarkadan, eta 90eko hamarkadan estali egin zuen. Euria-
ren eraginez gai toxikoak iragazten zirenez, likidoa araztegia bideratzeko sistema bat ipini zuen enpresak neurri zuzentzaile lez, baina EH Bilduk erakutsi zuen sistema horrek ez zuela funtzionatzen eta likidoa erreka-
rara heltzen zela. Salaketaren ostean jakin zenez, Iurretako paper fabrikari espediente bat zabaltzea proposatu zuen URA agentziak.

Bestalde, paper fabrikako Enpresa Batzordeak prentsa oharrean azaldu zuenez, "azken urte honetan istripu asko eta oso larriak egon dira". Enpresako segurtasun neurriak kritikatu zituen ELA eta LAB sindikatuek osatutako Enpresa Batzordeak.



Maristetako ikasleak ziberdelituak ikertzen

Herririk herri - DURANGO

> **IRUZURRA.** Durangoko Maristak ikastetxeko ikasleak ziberdelitu bat ikertzen lagundu zuten. Internet bidezko lapurreta Ertzaintzan salatu ostean, durangar batek zibersegurtasunean diharduten Maristak ikastetxeko ikasleengana jo zuen. Internet bidezko iruzurra urriaren 20an gertatu zen. Durangar batek telefono deia jaso zuen. Iruzurgilea Microsofteko teknikari legez identifikatu zen.

Herritarrek OHZren goeraren aurka

Herririk herri - ABADIÑO

> **ZERGAK.** Herritarrek kargu hartu diote Abadiñoko udal gobernari OHZ zerga ez jaistearren. Jose Luis Navarro alkateari "herriari ez entzutea" leporatu zioten azaroko osoko bilkuran. Navarro alkateak prentsa oharrean dioenez, Abadiñoko baserrien OHZ Durangaldeko merkeena da udalak ematen duen diru-
laguntza dela-eta.



Zainketa kamerak frontoi inguruan

Herririk herri - OTXANDIO

> **KAMERAK.** Ekintza bandalikoak ez dira berriak Otxandion, baina udalak egoera bideratzeko orain arte egin dituen saiakerek ez dute fruiturik eman. Jaietan igerilekura sartu eta, besteak beste, ingurua zikindu eta materiala apurtu zuen norbaitek. Frontoi inguruko azpiegiturretan ere kalteak eragin dituzte. Horren ondorioz, udazkenean frontoi inguruan zainketa kamerak jartzea erabaki zuen udalak.

Hiper Eroski Abadiñon erosteko modu berri bat

EROSKI club
kreditu-txartel
berria

EROSKI Abadiño
hipermerkatu berria
Azoka kutsuko hipermerkatua

EROSKI
Abadiño zurekin



Tren geltokiko planari buruzko galdeketa egingo da 2019an

✚ **Herririk herri** - DURANGO

✚ **HIRIGINTZA.** Eusko Jaurlaritzako, Durangoko Udaleko eta ETSko ordezkariak trenbide zaharreko urbanizazio plana aurkeztu zuten ekainean. Trenbideko gunean, besteak beste, bost etxebizitza dorre eta aisialdirako guneak eraikitze-ko asmoa zutela baieztatu zuten. Urbanizazio plan horren inguruko galdeketa eskatzeko, Erabaki plataforma herritar-ak sinadura bilketa abiatu eta osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuen.

Erabakik 3.082 sinadura lortu zituen, beharrezko zirenak gaintututa. Horrela, abenduko osoko bilkuran galdeketa aurrera eramateko prozedura martxan jarri zuten. Ondorioz, urtarileko udal batzordean gaia landuko dute, kontsultako galderak zehazteko eta data bat ezartzeko. Gero, hile bereko osoko bilkuran galdeketa onartuko litzateke. Hiru hile eta urtebetera arteko epean egin beharko litzateke galdeketa.



Betaurreko moreekin abesten hasi dira Berrizen

✚ **Erreportajea** - BERRIZ

✚ **BERDINTASUNA.** Euskal kantutegi tradizionaleko abestiak betaurreko moreak jarrita entzuten hasi ziren Berrizko Kantulagun taldeko kideak. Kantatzerakoan, baina, abesti askoren letrekin deseroso sentitzen ziren. Gogoeta egiten hasi zirenean, kutsu matxista zuten letrak uste baino gehiago zirela konturatu ziren. Horrela, euskal kantu tradizionalen artean sei abesti aukeratu eta moldaketak egin zituzten, genero ikuspuntua txertatuz. Guztira, 160 berriztarrek parte hartu zuten proiektuan. *Hator neska-mutil etxera* diskoa salgai jarri zuten Durangoko Azokan.



Oihana Azkorbebeitia garaipenez garaipen

✚ **Kirola** - ABADIÑO

✚ **LASTERKETAK.** Oihana Azkorbebeitia korrikalariak makina bat bider zapaldu du podiuma 2018an. Besteak beste, bigarren egin zuen Hiru Haundietan. Idaztera ere ausartu da abadiñarra. Umetatik mendiagaz izan duen lotura errepasatu eta azken denboraldiko lasterketetan bizitako gertaerak kontatzen dituen *Mendiaren altzoan* liburua kaleratu zuen joan zen hilean.



IURRETA
Tellitu-n

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu
beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



Airearen kalitatearen inguruan kezkatuta

Herririk herri - DURANGO

> **OSASUNA.** 2017ko abenduan Eusko Jaurlaritzak ikerketak egin eta airearen kalitatea ona dela adierazi zuen arren, herritarren kezka ez da baretu. Hainbat herritarrek salatu dute hats handia egon dela Durangoko kaleetan. Gainera, Herriaren Eskubideak egun askotan eman dituen neurgailuen datuen arabera, kalitate maila onargarria gaingitu izan dute ordu batzuetan, Osasunerako Mundu Erakundearen irizpideei jarraituta. Alderdi horrek mozioa aurkeztu zuen udaletan eta Eusko Legebiltzarrean, eskualdean neurgailu gehiago jartzeko eta herritarrek babesteko protokolo bat eskatzeko, besteak beste. Durangon eta Legebiltzarrean onartu zuten.

EH Bilduk aurreratu zuenez, Durangoko Amankomunazgoak airearen azterketa egingo du. Era berean, EH Bilduk airearen kalitatearen inguruan ikerketa independente bat egiteko eskatu zion Durangoko gobernu taldeari.



Durangaldeko hiru ordezkari finalean

Kultura - DURANGALDEA

> **BERTSOLARITZA.** Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala abenduaren 15ean jokatu zen, Miribillan. Eskualdeko hiru bertsolarik parte hartu zuten. Miren Amuriza berriztarra seigarren sailkatu zen, Eneko Abasolo *Abarkas* iurretara zazpigarren eta Aitor Bizkarra abadiñarra zortzigarren. Onintza Enbeita muxikarrak jantzi zuen txapela. Lehenengo emakume txapelduna da.

Silvia Trigueros Mendi Film Festivalen

Kirola - ABADIÑO

> **LASTERKETAK.** Iñaki eta Mikel Urresti anaiek Silvia Triguerosen inguruan landutako *Tor* dokumentala estreina-tu zuten Bilbao Mendi Film Jaialdian. Urte borobila izan da Triguerosentzat. Besteak beste, Europako lasterketarik gogorrenetakoa den 330 kilometroko *Tor des Geants* proba irabazi zuen, aurreko urteko marka 10 orduan hobetuz.



115.000 bisitaritik gora Durangoko Azokan

Kultura - DURANGO

> **DURANGOKO AZOKA.** Antolatzaileek 53. edizioaren balorazioa egin dute. "Gure aurreikuspenak bete eta gaingitu egin dira. Azoka borobila izan da, alderdi kuantitatibo eta kualitatiboan", azaldu zuten Landako Guneko ateak itxi bezain laster: 115.000 bisitaritik gora izan zituen Azokak. Itxiera ekitaldian, 2019ko aldia abenduaren 5etik 8ra izango dela iragarri zuten.

Smurfit Kappa
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión



**KURUTZIAGA
IKASTOLA**

BIZITZEKO HEZI

**Ezagutu
gaitzazu!**

GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikaslea ardatz

Euskara eta Euskal kultura

Eleaniztasuna

Genero berdintasuna

Aniztasuna

Natura



ATEAK ZABALIK

Ezagutu ikastola eta gure hezkuntza proiektua

URTARRILAK 26, zapatua, 11:00etan.

Aste barruan talde-bisitak egiteko jar zaitez gurekin harremanetan:

Tel. 946200822 / idazkaritza@kurutziagaikastola.eus

www.kurutziagaikastola.eus